

uk

194. zenbakia / 2011ko maiatzaren 6a



uribe

kostan

ere ...



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Algotako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarte
Topaguneko partaideak da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Kotxe klasikoak Artea merkatalgunean.
7. LEHEN ETA ORAIN. Caza Bar.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jesus Murieta.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. La Kantera skate eskola, txapelketa.
28. ARGAZKIA. Bizkaiko Zubia, argazki zaharra.
30. BERBETAN. Ander Iturriotz.
34. FOTOGRAFIA. 17. Korrika, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zeluloidezko begiradak.
43. MUSIKA. Siroka, azken diskoa.
44. LIBURUAK. eztena.org.
45. KIROLAK. Barrikako Futbol Taldea.
46. ELKARRIZKETA. Xavi Sarriá.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Gure Etxea, Romo.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sopelako eskola, 1942.
54. AITORMENAK. Mirri Junior.

Azala: Asier Mentxaka

www.ukaldizkaria.biz



30 Ander Iturriotz

Berbetan

Maiatzaren 22ko hauteskundeei begira jarri dugu EHUKo soziologia irakaslea eta idazlea.



11 Jesus Murieta



54 Mirri Junior



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leloa RENTACAR
Ibilgailu-aloakirua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Kontsultak

Hondamendia eta kaosaren aurrean, badaude oraindik ere erabakitzeko eta merkatu eta gobernuen jokaerak zigortzeko mekanismoak. Nahikoa da horretarako herriari galdetzea. Estrategia neoliberala nolabait zigortuz, Islandiak dagoe-neko birritan esan dio ezetz diru publikoagaz banka pribatuaren zorra kitatzeari. Bestalde, natur-baliabide eta energia iturriakaz lotuta, Italia izango da udaberri honetan erreferendum bidez erabakitzera doana. Ura ondasun publikoa ala merkatu pribatuen esku laga daitekeen salgaia den ebatziko dute alde batetik. Bestetik, energia nukleararen produkzioaren debekua mantentzeko aukera izango dute, bigarrenez (1987an, Chernobileko istripuaren ondoren ebatzi zen energia nuklearra ekoiztearen debekua). Inbidiagarria da, epaitegietara azaltzen ez den lehen ministro horren herrialdean, erreferendumek duten potentziala. Auzoko ditugun katalanen artean, oraintsu amaitu da duela urte eta erdi abiatutako independentziaren inguruko kontsulta (ez-ofizial) olatua. Ez zaie ezertxo ere galdetu ostera, sektore publikoan (eta bereziki osasun arloan) ematen ari diren murrizketa latzen inguruan. Gurean ez zaigu ezer galdetzen, ez ingurumena, ez politika sozio-ekonomiko, ezta herri nortasunaren inguruan ere. Kontsultarik ez... eta gainera, hil akabuan hautesontziakaz dugun zitan, herriaren ahotsetako bat isilarazi gura dute.

gu geu

Euskalakariak karraderan

Umeak, gazteak zein helduak. Koadrilan, bikotean zein bakarka. Irakasleak, dendariak, jubilatuak zein langabeak. Politikariak, preso ohiak, ezkertiarrak zein eskuindarrak. Urte bian behin AEKri esker errealitate egiten den Korrikaren fenomenoak Uribe Kosta zeharkatu zuen apirilaren 16an, pausoz pauso, karraderan. Kolore ezberdinetako (ez guztietako) emakume eta gizonek izerdia bota zuten *Maitatu, ikasi, ari* mezua lau haizetara zabaltzeko. San Mameseko lehoiakaz batera, liskarrean daudenak batu eta giro ederra sortzeko ahalmena duen hedabe magiko bakarra da Korrika. Uribe Kostako euskalakariak harro daude gure hizkuntza zaharraz. Ikustea baino ez dago gure argazkilariak kilometroz kilometro harrapatu zituen irribarreak. Bila egizu aurkitu gura duzun hori!

Korrika alde batera utzita, azken ohartxoa; kasu honetan, “gu geu” baino, “ni neu” izango dena. Azken urteotan UK-ko itsasontzia gidatzen ibili naiz ni, Maitane Nerekan Umaran. Laster beste itsaso batzuetan sartuko naiz eta hori dela eta UK-ko patroia izateari utziko diot. Lan-taldekook egoki ikusi dugu inongo gaizki ulerturik sortu aurretik, zuek, gure itsasoko ezinbesteko ur tantak zaretenak, jakinaren gainean jartzea. Nire aldetik, aurrerago idatziko dizuet merezi duzen agurra. Bitartean beharrean jarraituko dugu; UK-k merezi du eta!

UK-ko lantaldea

Iritzia

Getxon joan den urtean sortu zen Sarea Josten euskararen aldeko ekimenean parte hartzen dugun talde zein banakook ondoko testua adostu dugu.

Manifestua

Herri honetan azken urteotan hainbat pertsonak eta eragilek egindako lanari esker –euskalgintzan eta herrigintzan dabiltzanak, irakaskuntzakoak, elkarteak, baita ad-ministrazioak ere (Udala, batez ere)– euskarak aspaldiko egoerarik onena bizi du,

«Euskaratik eta euskaraz lan egin behar dugu»

na herri euskalduna lortu nahi badugu, euskaratik eta euskaraz, lan handia egin beharko dugu, oraindik ere, denon artean.

Alde batetik, herriko euskaldunok eta euskaltzaleok euskararen sarea indartu eta zabaldu behar dugu, gure arteko harremanak sendotu eta trinkotu behar ditugu. Horregatik aukeratu genuen sarearen irudia: Sareak bi elementu ditu josita: puntuak eta hariak. Puntuak euskaldunak gara eta hariak dira gure arteko harremanak. Eta biak dira garrantzitsuak eta ezinbestekoak sarea osatzeko. Punturik edo haririk ez badago, sareak zuloak izango ditu eta ez da sare izango.

Sarea josten ekimenean batu garen guztiok lanean gabiltza euskararen sarearen pun-

turen batean: euskaltegia, berbalagun-taldea, institutua, guraso-elkartea, taberna, familia, koadrila, euskarazko komunikabidea... Horiek denak puntuak dira, horietan euskaldunak gaudelako. Euskararen sarean puntu asko daukagu, guk uste baino gehiago. Baina puntuak ez dira bakarrik taldeak edo elkarteak edo erakundeak, gutako bakoitza puntu bat da euskararen sare honetan. Euskaldun bakoitza, euskara ikasten dabilen bakoitza, euskara ulertzen duen bakoitza, puntu bat da. Eta ez gara puntu gutxi, uste baino gehiago gara. Hala ere, puntu asko falta dira oraindik eta falta direlako, zuloak daude sarean; joango gara sarea ehuntzen: lagunak eta ezagunak animatuko ditugu euskara ikastera eta umeek euskara ezagutzeko duten eskubidearen alde egingo dugu.

Eta sarea egiteko, puntuak bezain garrantzitsuak dira hariak, eta uste dugu euskararen sare honetan puntu gehiago dauzkagula hariak baino. Eta noiz lotzen dira puntuak hari bidez? Institutuko ikasleek tabernariarekin euskaraz egiten dutenean, euskaltegiko euskara-ikasleak udaleko langile euskaldunarekin euskaraz egiten duenean, koadrilako lagunek ere UK eta ukberri irakurtzen dutenean... Hariak lotzen ditu sarearen puntuak, familia barruan, koadrilan, gurasoen artean, lankideen artean. Horregatik konpromisoa hartuko dugu, eta ahal dugun guztietan, euskaraz hitz egingo dugu. Herritarrok, orain dela urte batzuk, bai euskarari esan genuen eta, orain, horrekin batera, euskaraz bai ere esaten dugu; hau da, euskararen alde egongo gara eta euskararen alde egingo dugu: euskaraz biziko gara.

Bestetik, ordezkari politikoei eskatzen diegu hizkuntza-politika ausartagoa eta eraginkorragoa aurrera eramateko. Azaldu nahi diegu egindakoa birplanteatu behar dutela eta euskararen aldeko ekintza puntualez gain, euskaraz bizitzeko aukera eman behar dutela esparru guztietan. Gainera, esan nahi diegu ez gaudela prest euskararen bidean atzera egiteko eta orain arte denon lanari esker lortutakoa galtzeko. Martxan dauden proiektuak, baliabideak eta diskurtsoak urtetik urtera gehitu, handitu eta sakondu behar dira etengabe, euskara denona eta denontzat delako, alderdi politikoen siglen gainetik eta egoera politikoen gainetik.

Kolpe, kolpe, kolpeka, josi eta josi...

Sarea Josten ekimeneko eragileak



LEOA. 2011KO APIRILA

Klasikoetan klasikoenak/ Auto klasikoen XX. Nazioarteko Rallya apirilaren 5ean heldu zen eskualdera. Artea merkatalguncan egindako erakuskeran, auto klasikoen zaletuek lau gurpileko bitxiak ikusreko aukera izan zuten: 1922. urteko Hispano H16 B, 1938. urteko Jaguar SS 2.5, 1978. urteko Peterbit... Aparkalekuan ehunka zaletu batu zen autoen zirrikitu guztiak aztertzeko, gehienak argazki-kamera eskuan zutela. Auto klasiko gehienek abiadura handia hartzen ez duten arren, jakinmina pizten jarraitzen dute. Gainera, seguru 110 kilometroko abiadura mugagaz ez dutela arazorik izango! O / Argazkia: Asier Mentxaka

2011
kanpo
martxo

ASUA-ERANDIO
Maiatzak 8

12.00 Dantzak: Goialde, Trabudu, Uztargi
13.00 Bertsolariak
14.30 Herri bazkaria
17.00 Betiko kantuak
17.00 Umeentzako antzerkia; Sointek
18.00 Erromeria: Arrabots

Antolatzailea:
BERBOTS
ERANDION
EUSKARAZ!

Laguntzaileak:
Goi-Alde, Trabudu eta Uztargi dantza taldeak
ALBE
Asuko jai batzordea
Mendibaiarte abesbatza

Babesleak:
ERANDIO
ELIZATENA LEBAN
BIZKAIA
BFA
DFB

**Iraganez doa denbora* beti / CAZA BAR, ALGORTA**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zaldia eta cowboya



2011ko martxoa, Sopela

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Norteko ferrokarrila

Baten batzuk pentsa dezakete
“hau da hau, mutil zorua!”.
Zaldiaren gainean ederto,
bidean zehar hor doa.
Hor goian eserita joatea
ezin da izan eroso...
Gaur bakarren bat izan daiteke
Getxon cowboy moderno.

“Benga, azkarrago joan zaitezke,
arre, arre, galopera!”
Gizon honek akatu_egingo nau,
noiz joango gara etxera?
Gustura_ibiliko nintzateke
Le(he)ngo zaldien antzera...
Indioen atzetik korrika
John Wayne-rekin batera.

Nire gainean hemen daramat,
ai ama, hau iskanbila!
Berba eta berba hementxe dabil
gure bakero umila...
Komunikazioa omen da
gizartean marabilla.
Lehen su seinaleak behar ziren
gaur egun, aldiz, mobila.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria

- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

jaiak > herrietako jaiak antolatzeke batzen hasi dira Jai Batzordeak



Astero batzen dira Jai Batzordeak, zuk zeuk ere parte har dezakezu

Uda gertu dago eta herri zein auzoetako jaiak antolatzen hasi dira Jai Batzordeak. Berangon eta Leioan jaiobarrak dira, baina ilusio handia daukate. Berangoztarrak astelehenero elkartzen dira Berangoetan 19:30ean; dei egin diete herriko musika taldeei jaietan jotzera anima daitezten. Leioako San Juan jaietako Jai Batzordea, barriz, eguenero batzen da Gaztegunean, 19:00etan; Sopelakoa astelehenero Plaza Beltza Kulturgunean, 18:00etan; Algortako Portu Zaharrekoa astelehenero Etxetxun, 20:00etan, San Inazio jaietakoa astero elkartzen da Agurra dantza taldearen lokalean (harremanetarako: aixerrota.jaibatzordea@gmail.com) eta Romo eta Pinuetakoa eguaztenero 20:00etan, Kultur Etxe barrian (lehengo liburutegian, Lope de Vega kalean). Herritar guztiek daukate lekua eta denek ekarpenak eskertuko dituzte; beraz, zeu ere animatu eta parte hartu zure herriko jaietan! ○

euskara > familia euskaldunetan egonaldiak antolatu ditu HABEk



Ikasleek maiatzaren 9tik 27ra eman dezakete izena: www.egonaldiak.net

Euskara ikasten zabilta? Noizbait parte hartu duzu barnetegi batean, baina zer edo zer gehiago gura duzu? Bada, orain baduzu aukera giro euskaldunetan bizitzeko, izan ere, HABEk familia euskaldunetan egonaldiak antolatu ditu udarako. Baina egitasmoa gauzatzeko etxean apopiloak hartzeko prest dauden familiak behar dira. Biztanleriaren % 70etik gora euskalduna duten udalerrietako zein auzuneetako bizilagunak izan behar dute eta familia kideen arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izan behar da. Egonaldiak 15 egun, hilabete bat edo bi hilabetez luzatuko dira. Ikasleek 18 urtetik gora eta 8. urratsa edo horren baliokidea gainditua izan behar dute. Maiatzaren 9tik 27ra eman dezakete izena eta informazio guztia topa daiteke www.egonaldiak.net gunean. ○

saiazgetaria

HOTELA



Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]


udalekuak > euskal udalekuetan izena eman daiteke



Info+: www.euskaludalekuak.org edo 626 029 479

Udabarria aurrera doala eta uda ate joka hor dugu, segituan iritsiko da. Horregatik, planak egiten hasi beharra dago, batez ere umeen udalekuei dagokienez. Aurten ere Euskal Udalekuak antolatu dituzte eta dagoeneko izena eman daiteke. Ez dago epe mugarik, tokiak bete arte apunta daitezke umeak eta gazteak. Hiru tokitara joan daiteke, Abaigar, Goñi eta Bernedora. Hainbat txanda izango da toki bakoitzean, uztailean eta abuztuan banatuta, 9 edo 16 egun artekoak. Prezioa ere egun kopuruaren arabera aldatuko da. Ume zein gazte, 1994 eta 2004 artean jaioetako euskaldunek parte har dezakete. Tokia eskatzeko telefonoz hots egin daiteke 626 029 479 zenbakira (18:00etatik 20:00etara) edota mezua bidal daiteke posta@euskaludalekuak.org helbide elektronikora. Informazio gehiagoren barri topa daiteke www.euskaludalekuak.org webgunean, txandak, adin tarteak, prezioa e.a. ○

euskara > batua-bizkaiera bihurtzailea daborduko interneten



bizkaiera.opentrad.com gunean duzu bihurtzailea

Testuak euskarra batutik bizkaierara itzultzeko zerbitzua da sarean daborduko: Opentrad B; *bizkaiera.opentrad.com* gunera jo behar duzu erabiltzeko. Azkue Fundazioak eta Elekak abiatu dute sistema. Oraingoz batua-bizkaiera noranzkoan baino ez dabil, baina maiatzaren akabuan norazko bietan ibiliko den sistema erabilgarri izango da, Azkue Fundazioaren webgunean. Webgunean dagoen bertsioa ez da behin-betikoa eta hobetu guran dabilta egileak, horregatik laguntza eskatu diete erabiltzaileei. Akatsen barri eman daiteke ondoko helbide elektronikoaren bitartez: *bizkaiera@opentrad.com*. Webgunea egiteko Euskaltzaindiaren hizkuntza irizpideak erabili dituzte batuaren kasuan, eta Labayru Ikastegiarenak bizkaieraren kasuan. ○

[eretratual]



“Nongoak garen jakin behar dugu , nora goazen jakiteko!”

Jesus Murueta > Mugarrien aita

Herri, auzo edo baserrien arteko mugak zehazteko mugariak erabili izan dira gurean mendeetan zehar. Egun, Google Earth-
en aroan, gure herriko alkate eta baserriarrek ez dute mugarrien beharrik lurra non hasi eta non amaitzen diren jakiteko. Baina,
badira mugarrietan interesa izaten jarraitzen duten lagunak. Horietan, nabarmenena, Jesus Murueta leioztarra dugu, ‘Mugarrien
aita’: *“Beti izan naiz mendigoizale amorratua. Nafarroara asko joaten nintzen, eta mugariak ikusi nituenean, arreta eman, eta ikertu
behar nituela erabaki nuen”*. Mugariak ikertu dituen lehenengoa izan da Murueta, eta hiru urtean, Nafarroa eta Ipar Euskal
Herriaren arteko muga zehazten duten 276 mugariak (hiru desagertu dira) zeharkatu eta ikertu ditu: *“Hasieran oso gogorra egin
zitzaidan informazioa topatzea, landu barik zegoelako. Gainera, hemendik haraino joan behar nuen”*. Eskuz idatzitako testuakaz eta
argazkiakaz, 300 orrialde baino gehiagoko ikerketa egin du leioztarrak, baina momentuz ez du zabaltzeko asmorik: *“Bihotzak
eskatzen zidan egitea, beti sentitu naizelako Nafarroako zati txiki bat. Nongoak garen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko!”*.
Mugarrien gaineko interesak ez du mugarik Muruetarentzat, eta egun bere bizitokia Kanada den arren, mugak ez dira oztopo
ikerketakaz jarraitzeko: *“Nire herria, Euskal Herria, nire ahurra bezala ezagutzen dut”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

 **cianoplan**
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

San Isidro jaietara autobusean

Hilaren **12tik 15era** ospatuko dira aurten **udalerriko lehenengo jaiak**; kotxea hartzeko aitzakiarik egon ez dadin, autobus zerbitzua gau osoan



Sanisidroak maiatzaren 12tik 15era egingo dira aurten

Udalerriko lehenengo jaiak ospatzeko gogoz batuko dira herriko ume, gazte eta hain gazte ez direnak hilaren 12tik 15era. Nekazarien patroik kristauari gorazarre egiteko helburuagaz sortutako ospakizunak, ohitura zaharrak eta ideia barriak uztartuz egin du aurrera, auzoa bizirik dagoela erakutsiz.

Aurten ez dago aitzakiarik! Getxoko San Isidro jaiak herriko auzo guztietara hurbilduko dituen “parranda-busa” eta guzti helduko dira maiatzaren 12an. Goiz, arrastiz zein gauzez ondo pasatzeko aukera emango duen egitarauagaz batera, etxera lagunduta eta kotxea hartu barik bueltatzeko aukera emango duen autobu-

sa antolatu dute. Gaueko 12:00etatik goizaldeko 05:00etara, 40 minuturo Andra

«Hilaren 14an, zapatua, baserritar jantzita joateko deia zabaldu dute Jai Batzordekoek»

Mariko txosnen atzealdean hasiko du ibilbidea autobusak; Bidezabal metro geltokira, Algortako Telepizzara, Areetako Mesedeetako Elizara, Areetako kale nagusira, Fadurara eta Ormaza kalera joango da. Azkorriko estartetara ere hurbilduko da, gidariari eskatuz gero.

Baina etxera bueltatu orduko erromeria, antzerkia, poteoa, Itxas Argiako dantzaldia, herri bazkaria, kontzertuak eta askoz gehiago! Ez ahaztu zapatuan baserritar jantzita joatea! Gora *sanisidroak*! ○

Ekitaldi batzuk

- **Maiatzak 12, eguna:**
 - Pregoa eta txupina, Geroa Ikastolaren eskutik (Malakaten, 17:30)
 - Txokolatada
 - Kalejira
 - Tor Magoa
- **Maiatzak 13, barikua:**
 - Mus txapelketa (Kiroldegi aurrean, 18:00)
 - Haur erromeria (Malakaten, 18:00)
 - Antzerkia (aparkalekuan, 18:30)
 - Zesta-punta (Frontoian, 20:00)
 - Kontzertuak (Txosnagunean, 21:00)
 - Talde lokala
 - Solte
 - Gozategi
- **Maiatzak 14, zapatua:**
 - Puzgarriak (Malakaten, 10:00)
 - Herri bazkaria (Txosnagunean, 15:00)
 - Kantak eta helduentzako jolasak (Txosnagunean, 18:00)
 - Poteoa (Herriatik, 20:30)
 - Itxas Argia Taldearen dantzaldia (Kiroldegian, 21:00) . .
 - Kontzertuak (Txosnagunean, 22:00)
 - Talde lokala
 - Siroka
 - Obrint Pas
- **Maiatzak 15, domeka;**
San Isidro Eguna:
 - Azoka (10:00)
 - Herri Kirolak (11:00)
 - Umeentzako Jolasak (11:00)
 - Tiraxina eta tronpa erakusketa (11:30)
 - San Isidro eguneko meza, luntxa eta aurrekua (Kooperatiba eta Itxas Argiaren eskutik, 12:00)
 - San Isidro esku pilota txapelketaren finala (Frontoian, 12:30)
 - Erromeria Luhartz taldearen eskutik (Bizkaiko Dantzari Egunaren barruan)

2014ra arteko Plana

Berdintasuneko III. Plana onartu zuten aho batez



Martikoena kalean dago Jabekuntza Eskola

2011tik 2014ra arte indarrean egongo den III. Getxoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Plana aho batez onartu zuten martxoko osoko bilkuran. Herriko elkarte, emakume, udal behargin, sindikatu eta beste hainbat erakundegaz elkarlanean osatu dute plana, hilabeteetako beharra eskatu duen parte hartze prozesuaren ostean.

Eragile nagusitzat Udala jartzen du planak, baina herritarren bultzadaren beharra dagoela azpimarratzen du. Gizonak bardingintasunaren aldeko konpromisoen garrantziaz jabetzeaz, getxoiztarrek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko politika publikoak beharrezkotzat jotzeaz eta emakume gazteak bazterketa egoeraz kontzientizatzeko baliabideak eskaintzeaz indarra egin gura dute Planagaz.

Egitura Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen V. Berdintasun Planagaz bat dator eta hiru ardatz estrategikotan oinarritzen da: emakumeen jabekuntza eta baloreen aldaketa, emakume eta gizonen arteko antolaketa sozial partekatua eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egitea. Aurreko Planetan martxan jarritako ekimenetako batzuk, barriakaz uztartzen ditu.

Datozen urteetan, 2014a bitartean, hainbat ekimen jarriko dira martxan 10 esparrutan: genero eta berdintasun irizpideak kontuan hartu beharko dituen gobernatzeko ereduan, Hezkuntzan, Gizarteratzean, Hirigintzan, Enpleguan, ingurune eta garraioan, Kulturean, Komunikazioan, Kirolean eta Lankidetzan eta Osasunean. ○

ESKOLAZ KANPOKOAK EUSKALDUNTZEKO

Maiatzaren 20ra arte egongo da zabalik 2010-2011 ikasturtean eskola orduz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko ekimenak antolatzen bideratutako diru laguntzak eskatzeko epea. 40.000 euro banatuko dituzte txangoak, sentsibilizazio kanpainak, udalekuak, jaiak, ikus-entzunezkoak, aldizkariak eta bestelakoak laguntzeko. Eskakerei Udaletxeko Erregistro Orokorrean, Herritarren Arretarako Bulegoetan, Udaltzaingorekin bulegoan edo legeak zehazten duen lekuetan aurkeztu daitezke.

UDALTZAINAK ANIMALIEN JABEAK KONTROLATZEN

Udaltzaingok jardura indartuko du zenbait txakur jaberengizabidezkoak ez diren portaerak geldiarazteko. Animaliak edukitzeko ordenantza arautzailea bete dezaten exijituko zaie, bereziki txakurren gorotza batu eta txakurra lotu barik eroan ez dezaten. Portaera okerrekin ohartarazteaz gain, isunak jarriko dituzte, indarrean dagoen legegia betetzeko. Gorotzak ez batzeagatik, 601 euro arteko isunak jarriko dira eta txakurrak lotuta ez eroateagatik 300 eta 1.500 euro bitartekoak. Portaera okerrak gehien gertatzen diren lekuetan eta txakurrak kalera ateratzen diren orduetan egongo dira beharrezko udaltzainak. Horrez gain, Txakurren Udal Zerbitzukoak batera, txakurrek txipa eta bestelako baimena duten zainduko dute.


UDAKO KIROL SAIOETAN IZEN-EMATEA 13RA ARTE

Maiatzaren 13a arte zenbaki bat jaso ahal izango da Fadura eta Gobelako bulegoetan, Getxo kirollekuak antolatzen dituen udako ikastaroetarako zozketan parte hartu ahal izateko. Tenisa, padela, igeriketa eta abenturako kirolez gain, aurten Kirolet@n izeneko ikastaroa egingo dute lehenengoz, nerabeak kirola egitera animatzeko. Azken horretan, batuka eta surfa egingo dute, besteak beste. Zozketa maiatzaren 17an 10:00etan egingo da Faduran.

Info+: 94 430 80 69 / 94 404 51 51

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak Zuretzko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

La Cuchara elkarte artistiko-kulturala > Arte Hormonado Jaialdia

“Artea egiteko modu asko dago; guk aterik bako arte askea bultzatu gura dugu”



La Cuchara elkarteko lagunak

**EHUko Arte Ederretako fakultatean ezagutu eta jaialdi barritzaila sor-
tze**ko asmoagaz beharrean jarri ziren La Cuchara elkarteko lagunak. **Horien artean Ines Bermejo** romotarra dugu. **Aurten Arte Hormonado Jaialdiaren laugarren edizioa ospatuko dute maiatzaren 12tik 21era; *God Shave the Queen* leloa aukeratu dute 2011ko ediziorako, eta Euskal Herritik zein atzerri**tik helduko diren hamaika proposamen **ekarriko dute Bilbora. Milanetik erantzun ditu galderak Bermejok; izan ere, munduko txoko askotan antolatzen dute jaialdia La Cucharakoek.**

—**Arte Hormonado, zer dela eta?**
—Arte Hormonado izena Euskal Herri-ko arte eta kultur giroan aldaketa bilatzen genuelako hautatu genuen. Arte Jaialdi barria, dibertigarria eta freskoa da. Hortik izena; nerabezaroan hormonek aldaketa handia sortzen dute gure gorputzean.
—**La Cuchara elkarteak antolatzen du; nola hasi zineten beharrean?**
—Jaialdia orain dela lau urte jaio zen EHUko Arte Ederretako Fakultatean. Ikasle ginenean ezagutu genuen elkar, batzuek bertan ikasi eta besteak Seneka

bekari esker zeudelako bertan. Zazpi lagunen artean antolatzen dugu; jaialdi berezia da, bakoitzak hiri batetik antolatzen duelako: Berlin, Milan, Almeria, Lisboa, Valentzia eta Bilbo. Zaila da aurrera ateratzea, baina ilusioz egiten dugu behar.
—**Zertan datza jaialdia?**
—Maiatzean antolatzen dugu eta 10 egunean proposamen asko egikaritzen ditugu; hainbat diziplina Bilboko hainbat espazio. Alde batetik, egindako deialdiari erantzun dioten artelan garaikideak aurkezten ditugu; bestetik, programazio za-

bala aurkezten dugu: moda alternatiboa, musika, performance-a, dantza tailerrak, arteari buruzko berbaldiak e.a. Euskal Herriko zein atzerriko artistak gonbida-

«Programazio zabalagaz gatoz, indarrez eta alaitasunez»

tzen ditugu. Joan den urteko edizioan adibidez, 25 artista plastiko, 24 musikari, 5 performer eta 7 moda diseinatzailek hartu zuen parte.
—**Zer ekarriko duzue 2011ko edizioan?**
—Programazio zabalagaz gatoz, indarrez eta alaitasun izugarriz. Maiatzaren 12tik 21era Bilbo Arte, Zero Espazioa, Berre-
ginen Museoan, BilboRock eta L'Mono aretoan egongo gara.
—**Proposamen apurtzaileak aurkezten dituzue beti, zergatik?**
—Ez dugu artea gauza klasikoa izatea gura; betiko aretoetatik atera eta bestelako ideiak aurkeztu gura ditugu. Nahiz eta ohiko espazioakaz elkarlanean aritu, gure helburua espazio horietara ez-ohiko artea hurbiltzea da. Protagonistak ez dira artis-
ta ezagunak izango. Artea egiteko modu asko dago; hori da guk bilatzen duguna, aterik ez egotea eta arte askea bultzatzea, oinarrian adierazpena duena.
—**Zelako harrera du jaialdiak?**
—Publikoa apurka hazten joan da; hasie-
ran Arte Ederretako ikasleak ziren gehie-
nak, baina aldatuz doa. Oso pozik gaude, jendeak ikustean egindako ahaleginak emaitza duela ikusten dugulako. Jendeak arte barria ikusteko, ondo pasatzeko eta proposamen barriakaz goatzeko aukera izan dezan gura dugu. o

Info+: artehormonado.wordpress.com/

3.500 dantzari Faduran Bizkaiko Dantzari Eguna egingo dute Fadurako errugbi zelaian hilaren 15ean



Itxas Argiako lagunak kaixarranka dantzatzen

Txistu eta danbolin soinurik ez da fal-
tako, ezta espartin, kaxkabilo eta buruko zapi-
rik ere. Luzaketak egin beharko dituzte maiatzaren 15ean Fadurako errugbi zelaian Bizkaiko Dantzari Egunean batuko diren lagunak. 3.500 dantzari inguru espero dira Bizkaiko Dantzarien Biltzarrean federatutako dantza taldeen topaketaren egun han-
dian. Gutxi gorabehera, ehun bat taldek parte hartuko du, eta hauek aurretik prestatutako dantzen egitaraua eskaintzea izango dute helburu, urtean zehar egiten duten prestaketa eta lanaren ahalegina batzen dituen.

Goizeko 11:30etik arrastiko 14:30era luzatuko da erakustaldia. 85 taldek parte hartu du Dantzari-dantzan; Gipuzkoako dantzetan 70 taldek. Horrez gain, 60 talde Gorulariak dantzatzera urtego dira eta 25 kaixa ikusi ahal-
ko da Kaixarrankaren txanda heltzen denean. Txiki-
ertainen kategorian eta 70 taldek hartuko du parte Eltziego dantzan.

Getxoko Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi-Eskola Dantza Taldeek ere parte hartuko dute. Sarrera doakoa izango da. o

Info+: www.dantzarieguna.net

ALGORTAKO JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETA

Uztailaren 28tik abuztuaren 1era ospatuko dira aurten Algortako San Inazio Jaiak. Oraindik hiru hilabete inguru geratzen bada ere, Jai Batzordeko lagunak beharrean hasi ziren aspaldi. Hasteko, kartel lehiaketa deitu dute, jaien irudia izango dena aukeratzeko. Maiatzaren 19ra arte Eztabaida Gunean (Amezti 3) entregatu ahal dira lanak. 70-50 zentimetroko neurria eduki beharko dute aurkeztutako lanek, euskarri gogorrean edo paperean. Gaia librea da, baina “Algortako San Inazioak 2011”, “Uztailak 28-Abuztuak 1” eta “Jaietan ere euskaraz!” leloa agertu beharko da. Egilearen datuak gordetzen dituen gutunazalagaz batera entregatu behar dira lan danak. Bestalde, Jai Batzordeko lagunak astero egiten dituzten bileretan parte hartzea deitu dute.

Info+: algortakosaninazioak.mundua.com

FILATELIA ERAKUSKETA MAIATZAREN 16TIK 21ERA

Getxoko Filatelia Elkarteak XXVIII. Erakus-
keta Filatelikoa egingo du Villamonteko Kul-
tur Etxean maiatzaren 16tik 21era. Bertan, Andres Isasi musikaria eta Andres Isasi Mu-
sika Eskola omenduko dituzte; azken ho-
nek, 25 urte betetzen ditu aurten. Astelehe-
netik barikura goiz eta arrastiz eta zapatuan goizez ikusi ahal-
ko den materialaren erdia herriko bildumagileena izango da. Musikaria eta Eskola omentzeko gutunazala eta zigilu-
marka diseinatu dituzte elkartekoek. Erakusketak irauten duen bitartean horiek erosteko aukera egongo da.

TOPONIMIA IBILBIDEAK MAIATZEAN ERE BAI

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak Getxoko Udalaren laguntzagaz martxan jarritako Toponimia Ibilbideak maiatzean ere egin ahal izango dira. 14an, *Betiko Getxo* ibilbidea egingo dute bizikletaz; goizeko 09:00etan hasiko da Andra Mari elizan. 28an, *Getxo barria* ibilbidea hasiko da 09:00etan El Carmen elizan.

Info+: getxokotoponimia.blogariak.net/

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Juan Antonio Bilbao > enologoa eta Mendibile Ardo Akademiako arduradun teknikoa

“Eliteen ohiko klubetatik aldenduz, jendeak edan, gozatu eta gugaz oso ondo pasatzea gura dugu”

Mendibile Ardo Akademia sortu barri da Mendibile Txakolindegia inguruan. Apirilean inauguratu zuten cava eta xanpain dastaketa bategaz. Juan Antonio Bilbao eman digu egitasmoaren barri.

—Akademia martxan jarri duzue, zein da bere egitekoa?

—Txakolinaren Museoaren inguruan ardoaren mundua ezagutu gura duen jendea bildu gura du egitasmo honek, eta txakolinaz gainera, ardo guztietara zabalduko da. Dastatzeak, ikastaroak, dastaketa *showroomak* e.a. Hilean bitan egingo ditugu dastaketak eta bestelako ekintzak ere antolatuko ditugu.

—Cava eta xanpain dastaketagaz abiatu duzue Akademia, zer gehiago prestatu duzue maiatza eta ekainerako?

—Apirilean Iberiar penintsulako ardoei buruzko *showroom* bat egin dugu, 50 ardotik gora dastatu dugu: Errioxa Dueroko erribera, Rueda e.a. Maiatzean, barriz, Alemaniako ardoak dastatuko ditugu eta beste *showroom* bat egingo dugu munduko ardoakaz: Borgoina, Burdeos eta Toscanoak, berbarako. Urrirako ere aurreikusita daukagu hirugarren *showrooma*, apardun ardoei buruz-



info+: www.ardoakademia.mendibilejauregia.com

koa. Izan ere, Gabonak gertu egongo dira eta aukera ona izango da dastatu ondoren aukeratzea gustukoenak.

—Bitxia da kalimotxoa egiteko ardorik onena aukeratzeko lehiaketa.

—Ardoaren marketinga lantzen dut eta uste dut publiko gaztea galtzen gabiltzala; edaten dutena baino ardo askoz sanoagoa edan zezaketen. Gazteak gerturatzeko ekimenak egin behar dira. Enologoa naiz, baina kalimotxoa ere edaten dut. Ardoa

ez da beti horren erraz sartzen, beraz, zergatik ez freskagarri bategaz hartu? Ardoaren mundura sartzeko beste modu bat izan daiteke.

—Kluba da eta bazkideak dauzka.

—Gura dutenek parte hartzea gura dugu, talde mardula osatu. Guztion artean ekimen barriak ere proposatu gura ditugu. Eliteen ohiko klubetatik aldenduz, jendeak edan, gozatu eta gugaz oso ondo pasatzea gura dugu. ○

Irrien egunak, 12tik 15era

Leioako **Umore Azoka** izango da maiatzean: **46 talde**, 50 ikuskizun eta **150 emanaldi**



Euskarazko ikuskizunik ez da izango aurtengo Umore Azokan

Urteroko zita irribarretsua iritsi da Leioara, Umore Azoka ospatuko da maiatzaren 12tik 15era. Egitaraua prest dago, hona hemen laburpen txikia.

Aurten 46 talde arituko da kalez kale edota taula gainean guztien algarak eragin asmoz, eta 50 ikuskizun eskainiko dute. Guztira 150 emanaldi izango da, herriko hainbat gunetan.

Euskal Herriko 13 konpainia arituko da, beste hainbeste ikuskizun emateko: Anita Maravillas Teatrok antzeztuko du *Blue bird*, Deabru Beltzak taldeak *The wolves*, Ganso & Compañiak *Mediopelo*, Kolektivo Mostrenkok *La pared*, Kukai Dantza Konpainiak *Karrikan*, Latirili Teatrok *Plumx Txalapunk*, Panta Rhei

taldeak *Monsters Show*, Teatro Gorkadak *Jim en la isla del tesoro*, Trapu Zaharrak *Vuelta & Vuelta*, Turukutupak *Rezilcnk*, Markeliñek *Anomalia magnetica*, Mama Crea taldeak *Parcela 85* eta Simulacro Teatrok *Paren el mundo*. Azken biak izan ezik, gainontzeko antzezlanak estreinaldiak izango dira. Hizkuntzari dagokionez, aurten ez da izango ikuskizunik euskaraz.

Bestalde, inoiz baino eremu handiagoan eskainiko dituzte antzezpeneak. Antzerki eta eremu ibiltariez gain, 15 taula edo eremutik gora izango da. Gainera, *La Codorniz*, *Humor*, *sociedad y censura* erakusketa ere ikusi ahalko da Kultur Leioako erakustaretoan. ○

TAXILARIEK UDALTZAI-NAK ABISA DITZAKETE “EDOZEIN GERTAERAZ”

“Turismoa sustatzeko, segurtasuna handitzeko eta zerbitzua barritzeko” hitzarmena sinatu dute Udalak eta taxi-gidariak. Segurtasunari dagokionez, taxien presentzia kaleetan “*nabarmena*” denez, taxilariak etenbako harremana izango dute Udaltzaingoagaz “*edozein istripu, gertaera edo ezbehar jazoz gero abisua emateko*”. Turismoari dagokionez, barriz, informazioa helaraziko diete bisitariei “*taxietako publizitate guneak erabiliz*”. Hitzarmenaren bitartez zerbitzua barrituko dute, hainbat ekimen medio: Terminal mugikorra ipiniko dute taxietan, taxi eta zentralaren arteko informazio trukaketa arinagoa izan dadin. Taxi-gidarien segurtasuna ere handituko dute; izan ere, GPS sistema bidez zentralak uneoro jakingo du taxiak non diren. Azkenik, bezeroek kreditu txartelagaz ordaindu eta erreserbak SMS bidez egin ahalko dituzte. Lau urte iraungo du hitzarmenak eta urtero 4.000 euroguz lagunduko ditu Udalak taxilariak.

KALEETAKO PLAKAK ETA IZEN BATZUK ALDATU DITU UDALAK

Kaleetako plakak aldatu ditu Udalak, eta bide batez, hiru kaleren izenak ere aldatu gura ditu. Hiru arrazoi eman ditu plakok aldatzeko: “*Leioaren garapenak eragindako kale eta leku barriei izena ematearen beharra, toponimia ikerketaren ondorioz zuzendu beharreko izenak eta plaka mota guztiak bateratu beharra itxura bardina mantentzeko*”. Era berean, hiru kaleren izenak ere aldatu ditu: Txabi eta Joseba Etxebarrieta zein Txikia etorbieak eta Darsena de Lamiako kalea dira. Hemendik aurrera Euzko Gudariak etorbidea, Basarte etorbidea eta Felipe del Rio kalea izango dira. Lehenengo biak “*erabaki judizial batzuen ondorioz*” aldatu dituzte. Kale izendegi barria dela eta udalerriko mapa barria argitaratu du Udalak.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2

Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

Viajes

Bidaia-agentzia berria Leioan

Estartetxe 19, Tf. 944 63 82 42

es_viajes1375@carrefour.com

Bidaiak guztien eskura

Luberri Basolanak, SL

Axpe ibaiertza 28A

beheko solairua B12 lokala

Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38

Tf. :94 467 17 13

Faxa: 94 467 42 41

luberri@euskalnet.net

www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Alberto Ramos Prieto > Astrabu Club Motero elkarteko kidea

“Lagunartean hasi zen dena, motorrean betidanik genbiltzan herritarren artean”

Moda-modakoak dira motorrak, askok eta askok gustuko dituzte, batzuek pasio. Astrabuduan ere badaude motorzaleak, kluba eta guzti daukate: Astrabu Club Motero. Alberto Ramos Prieto elkarteko kidea da. Maiatzaren 14an Sobronera egingo dute txangoa.

—Sobronera zoazte maiatzean.
—Goizeko txangoa egingo dugu. Elkarteko bazkideez gainera, gura duten guztiak etor daitezke. Sobroneraino joango gara eta han geldialdia egingo dugu. Zingiran edo herrian paseoa egingo dugu. Ondoren tragoa hartzen dugu eta kanpotik etorritakoak gonbidatzen ditugu. Goizpasa egiten dugu, beste helbururik ez daukagu, gogoia daukana etor dadila, beste barik.

—Urteera asko antolatzen duzue urtearen buruan?

—Batzuk bai. Apirilean Arantzazura joan ginen eta 20 lagunetik gora etorri zen. Urtean zehar bizpahiru txango antolatu ohi dugu motorzale guztiak parte hartzera anima daitezen. Bardin dio zein tamainako motorra duten, behar izanez gero talde bi egiten ditugu, bata azkarragoa eta bestea motelagoa, eta elkarri itxaroten diogu bide erdian; guz-



Alberto Ramos, Juan Carlos Villacorta eta Siro Fernández

tiak batera joatea da asmoa.

—Lagun asko biltzen zarete?

—Eguraldiaren arabera gehiago edo gutxiago, baina apurka, jendea gure ekimenak ezagutuz doa eta gero eta gehiago animatzen da.

—Zergatik sortu zenuten taldea?

—Lagunartean hasi zen dena, motorrean betidanik genbiltzan herritarren artean. Zapatuetan lotzen hasi ginen txango txikiak egiteko, eta azkenean, kluba sortu genuen. Lokala alokatu genuen eta

bazkideen kuoten diruaz bizi da elkarrean. Motorren kontzentrazioetara joateko Udalak ere laguntzen digu.

—Antzeko beste elkarteakaz harremanik daukazue?

—Bizkaia osoko elkarteakaz. Batzuetan elkarregaz afariak egiten ditugu eta kontzentrazioetan elkarri laguntzen diogu. Errepideetako errailen aurkako manifestazioetan parte hartzen dugu, eta Gabonetan, umeen marrazketa lehiaketa egiten dugu duela hiru urte. ○

Erandio ezagutuz

Ibilbideak antolatu ditu Kultura sailak herriko ondarea ezagutzeko, maiatzean eta ekainean



Izena emateko Udaleko Kultura sailera jo behar duzu

Erandioko hainbat zonaldeetatik ibilbideak egingo dituzte herriko ondarea ezagutarazteko asmoz. Udaleko Kultura sailak antolatu ditu eta maiatzean eta ekainean izango dira.

Bost ibilbide proposatu dute, herriko beste horrenbeste auzotatik. Bisitaldi guztiak hasiko dira 11:00etan eta 90 minutu inguru iraungo dute. Dagoeneko izena eman daiteke Kultura sailean eta doan, toki guztiak bete arte.

Maiatzaren 7an da lehena, Astrabudua auzoan, Josu Murueta plazatik hasita. Hilaren 14an, barriz, Goierri auzora igoko dira, Martiartu dorrea eta San

Antonio baseliza bisitatzeko. Biharamunean, 15ean, bisita bitxiagoa egingo dute: itsasadarrean ibiliko dira gasolinotan.

Hurrengo asteburuan, maiatzaren 21ean, Altzagaren txanda izango da eta auzoko eraikinei buruzko bisitaldia egingo dute; Irailaren 23a plazatiak abiatuko da ibilaldia. Maiatzeko azken bisitak, orde, Erandiogoikoara eroango ditu ibiltariak, hilaren 28an.

Ezin joan zaitezke? Lasai egon, ekainean ere ibilaldiak egingo dituzte-eta. Ordena aldatuko da, baina Kultura sailean emango dizute data guztien barri. ○

KANPOMARTXO ASUAN MAIATZAREN 8AN

Aurten Asua aukeratu du Berbots Erandion Euskaraz taldeak Kanpomartxo jaialdia egiteko. Maiatzaren 8an egun osoko egitaraua prestatu dute. Euskal dantza erakustaldia, bertsolariak, bazkaria, kantaldia, antzerkia eta erromerian ederto igaroko dute eguna erandioztarrek, musika, txosna, taloak eta giro parebakoa ez dira faltako!

LEHIAKETA EUSKARA ZERBITZUAREN WEBGUNEA EGITEKO

Udaleko Euskara Zerbitzuak gunea izango du interneten “udalerrian euskara sustatzeko garatzen diren ekintzen barri emoteko”, eta orria egiteko, lehiaketa abiatu du. Beraz, 15 eta 35 urte bitartekoek parte har dezakete, bakarka edo taldean. Euskaraz sortu behar da webgunea eta edozein tresna erabil daiteke hura garatzeko, baina gutxieneko zabalera 5 orrikoa izango da, eta gehienekoa, 20koa. Urriaren 28ra arte aurkez daitezke lanak. Irabazleak 900 euro eta tablet bat jasoko du.

ERANDIO ERE BILBOKO ITSASADAR FUNDAZIOAN

Apirilean sortu dute Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa Bilboko Portuko Agintaritzak eta itsasadarreko zortzi Udalerri, Erandio eta Leioa tarteko. Gainontzekoak dira Bilbo, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi eta Zierbena. Fundazioaren helburua da “eremu soziokulturalari eta aisialdiari begira egindako interes orokorreko planak eta ekintzak sustatzea eta garatzea”. Hainbat zeregin izango du, eta horien bitartez, aukera izango da hobeto ezagutzeko “portuak eta itsasadarrek gaur egun duten eta historian zehar izan duten garrantzia itsasertzeko udalerrien garapen ekonomikoan eta sozialean, eta horien integrazioan”, Fundazioko arduradunek jakinarazi dutenez.



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

URKO MENDI TALDEAREN XXVI. MARTXA, ABIAN!

Maiatzaren 15ean urteroko mendi martxa antolatu dute Urko Mendi Taldeko lagunek. Urteera nagusientzat 08:30ean izango da pilotalekuko aterpetik, eta txikientzat, 10:30ean. Betiko legez, 18 kilometroko ibilbidea bikotea egin beharko da. Aurreko egunean, 18:00etan, puzgarriak eta txokolatada antolatu dute udaletxeko plazan.

BIGARREN KONTSUMO TALDEA SORTUKO DA

Ikasturte hasieran sortutako kontsumo taldeak izan duen arrakasta ikusita, Plaza Beltza Kulturgunean bigarren kontsumo taldea sortuko da hurrengo asteetan. Izan ere, lehenengo taldea sortu zenean hainbat familia parte hartzeko aukera barik lotu zen, lekurik ez zutelako. Orain baduzu aukera!

ERDU OTERO MENDIRA MUNARRIKOLANDAGAZ!

Hilero legez, Munarrikolanda mendi taldeak urteera egingo du mendira. Maiatzaren 15ean Oterora joango dira sopeloztarrak. Goizean goiz urtengo dira eleiza aurreko autobus geltokitik, 06:30ean. Ezcarayraino joan, eta igoera hasiko dute Posadas herrixkatik. Ibilaldira animatu gura duten lagunek 15 euro ordaindu beharko dute (bazkide direnek 13) eta alde z aurretik izena eman beharko dute. Horretarako, mendi taldearen bulegotik pasa daitezke ostegunetan 20:00etatik 21:30era.

JAIETAKO KARTELA EGIN, 600 EURO DITUZU ZAIN!

Sormena landu, eta 600 euroko saria irabazteko gogorik bai? Jaietarako kartel lehiaketa aukera ezinhobea duzu horretarako. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 13an amaituko da, eta Kurtzion aurkeztu beharko dira. Gaia librea da, baina jaiakaz harremana izan beharko du. Animatu, eta irabazi!



Mungia eta Gatika, **gertu Bizkaibuseko linea barriak** Sopela Mungialdeko herriakaz lotuko du **orduro**



Creditrans, Gizatrans eta Hirukotrans txartelak erabili ahal izango dira

Garraio publikoaren eskaintza handitu da Sopelan apiril hasieratik. Bizkaibusek A3531 linea barria zabaldu du eta horren bitartez, Urduliz, Laukiz, Mungia, Maruri-Jatabe eta Gatikagaz lotuta egongo da Sopela aurrerantzean. Sopelatik lehenengo autobusa lanegunetan 07:00etan urtengo da, eta azkena, 21:00etan. Maiztasuna ordubeteko izango da. Igande eta jaiegunetan, barriz, 09:30etik 21:30 arte ibiliko dira autobusak joan-etorrian, eta maiztasuna ordu bikoa izango da. Gatikatik urteerak

lanegunetan 06:55ean izango dira ordu-ro, eta azkenengoa 20:55ean. Igande eta jaiegunen kasuan, 09:30etik 21:30 arte izango da ordutegia.

Gatikara joateko, lau geltoki egongo da Sopelan: Gatzarriñen (Larrabasterra metroaren alboan), Akilino Arriola (Zipiriñe eskolaren ondoan eta eliza alboan) eta Sabino Arana 14. zenbakian (Sertutxa taberna parean). Bueltan geltoki berberak egongo dira. Linea barri honetan Creditrans, Gizatrans eta Hirukotrans txartelak erabiltzeko aukera egongo da. o

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Sun Magoa > Magia Asteko parte-hartzailea

“Magiaren sekretuak ez bilatzeko esaten diet nagusiei, magiarekin gozatzeko baizik”



Sun Magoaren emanaldia maiatzaren 28an 21:00etan izango da Kurtzion, 10 euroren truke

Maiatzaren 24tik 29ra hagaxka magikoz, txisteraz eta trikimailuz beteko da Sopela. Izan ere, egun horietan Magiaren Astea ospatuko da eta nagusi zein txikienek magiaz gozatzeko aukera izango dute. Maiatzaren 28an, Sun Mago arabarraren ikuskizuna izango da. —Zer ikusteko aukera izango dugu Sopelan maiatzaren 28an?

—Ikusleek nazioarteko gala paregabea ikusteko aukera izango dute. Atzerriko hainbat magok parte hartuko du, tartetan, Brando eta Silvana argentinarren azken saioa. Nire aldetik, Madrilen ospatuko den txapelketa nazionalerako prestatu dudana emanaldia primizian eskainiko dut.

—Zer dela eta erabaki zenuen magia edo ilusionismoaren munduan hastea? —Magiaren munduak txikitatik erakarrri nau. Oporraldietan, nire gurasoekin hoteletara joaten nintzenean, bertan lan egiten zuten magoek liluratzen ninduten. Orain 26 urte ditut eta 14 urtetatik

daramat eszenatoki gainean. —Umeek ez ezik, nagusiok ere magian sinetsi behar dugula uste duzu? —Umeak ikusle zailenak dira agian, magian sinesten dutelako, eta horregatik normalean zailagoa da umeak harritzea. Eta nagusien kasuan, beti esaten eta gomendatzen dut magiaren sekretuak ez bilatzea, baizik eta magiarekin gozatzea. Ez dugu jendea engainatu nahi, jendea ilusionatu nahi dugu.

«Umeak izaten dira ikuslerik zailenak, magian sinesten dutelako»

—Mago on batek ez du inoiz bere trikimailurik kontatzen? Edo ez dago trikimailurik, magia baino ez da? —Mago on batek sentsazioak igorri behar ditu, eta horretarako trukoak erabiltzen ditu. Baina ez gara bakarrik trukoekin geratu behar, sentsazio horiek transmititzeko erabiltzen diren osagaiak baino ez direlako. o

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA iKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

Auria Diharce eta Kati Courtiade > Taupada Guneko kideak

“Guraso izatearen esperientzia elkarbanatu gura dugu, indibidualtasunetik eta bakardadetik kanpo”

Osasuntsu dago Berangoko elkartegintza. Azken hiletan hainbat elkarte sortu da herrian: jai arloan, kirolean, hirigintzan... Zerrendara gehitu den azkena aitzindaria da eskualdean: Taupada Gunea. Martxoaren 14an egin zuten lehenengo bilera, eta egun, 20 familia baino gehiago lotu da taup-taup egitera.

—Zertan datza Taupada Gunea?
—Familien topagunea da, eta familien ardurak, zalantzak, poztasunak... konpartitzeko lekua da. Guraso izatearen esperientzia elkarbanatu gura dugu, indibidualtasunetik eta bakardadetik kanpo. Gurasoek larritasun egoera asko bizi dezakete, batik bat hasi barriak direnek. Barriak diren gai askori aurre egin behar diete; batzuetan sentimendu negatiboak izaten dituzte, seme-alaba leihotik botatzeko gogoia izatea kolikoak dituelako, adibidez... Oso gogorrak diren esperientziak dira, eta egoera berak bizi dituztenakaz batzea da Taupadaren ideia.
—Egun, gurasoen artean hartu-eman hori egiten ez dela uste duzue?
—Hiriak asko aldatu dira eta egun ez dago batzeko astirik. Herriko plazan batzeko ohitura galdu da. Berangoren kasuan, gai-



Berangoeta Kultur Etxean batzen dira astelehenero, goizeko 11:30ean

nera, ez dago herriko plazarik. Lehen, etxe atarira urten eta auzokideakaz berba egiten genuen... Egun, gurasoak euren burbuilan bizi dira. Guk herriko plaza hori sortu gura dugu: horretarako batzen gara astelehenero 11:30ean Berangoetan. Gaiak, gainera, modu naturalean urteten dira.
—Aitak ere parte hartzera animatu dira?
—Taldea emakumeek sortu duten arren, aitei ere zabalik dago. Hiru aita hurreratu dira, aitasuna oso intentsoa delako.

—Zer egingo duzue hurrengo hileetan?
—Taldeari estruktura ematen hasi gara: bazkideak egingo ditugu 30 euroren truke. Alokairu zerbitzua eskaintzen dugu: liburuak, motxilak, esnea ateratzeko tresnak... Gainera, hitzaldiak antolatzen hasi gara. Maiatzaren 25ean 18:00etan, amen edoskitzeari buruzko hitzaldia egongo da eta ekainaren 18an, barriz, jaialdia antolatuko dugu. ○
Info+: <http://taupadagunea.wordpress.com>

Ilusioz beteriko aroa heldu zaigu Berangora!

- Berangoztarron parte hartzea sustatu dezagun udal erabakietan. Herriari eta auzoei hitza!
- Herritarren beharretara egindako hirigintza-planak bultza ditzagun. HAPO eta txikiziorik ez!
- Etxebizitza babestuak eta batez ere alokairu publikoa susta dezagun. Etxebizitza eskubidea orain!
- Lantzarateko landan kiroldegia eraikitzea babes dezagun, gazteontzako gune autogestionatua, atez ateko zabor bilketa, euskara biziberritzeko plana...

Berangoko ezkertiar eta abertzaleak, bilduko gara!



Estibaliz Alonso > *Espainiako Minbiziaren Aurkako Elkarte*

“Tratamendu bat jarraituz, tabakoa uzteko aukera gehiago dago”



Zazpi aste iraungo du terapiak, baina gero telefono bidezko jarraipena egingo da

Urte hasieran tabakoaren lege barria indarrean sartu zenetik, asko dira erretzeari uzteko aprobetxatu duten lagunak. Egiteko horretan laguntzeko, hila-bete biko terapia antolatu du Mankomunitateko Drogamenpekotasun Zerbitzuak, AECC Espainiako Minbiziaren Aurkako Taldearen eskutik.
—Zer irakatsiko da erretzeari uzteko ikastaro horretan?
—Hasteko, argi utzi behar dugu ez dela ikastaro bat, erretzeari uzteko talde-terapia da. Psikologo batek gidatuta, pertsona bakoitzaren egoera aztertzen da. Ez dago tabakoa uzteko modu bakarra, bakoitzak tabakoagaz harreman ezberdina baitu.
—Eta zein da eskaintzen duzuen tratamendua?
—Terapia psikologikoa eta terapia farmakologikoa eskaintzen dugu. Zazpi astetan egiten diren zazpi terapia-talde

dira, dohainik. Horren ostean, urte batean zehar telefono bidezko jarraipena egiten da. Tratamendua ez dago bideratuta inor konbentzitzera edo kontsumoa

«Ez dago tabakoa uzteko modu bakarra, bakoitzak harreman ezberdina du»
jaistera, tabakoa orain utzi gura dutenei zuzenduta dago. Emaizak oso itxaropentsuak dira: hasieran %80-90ek tabakoa uzten du, eta urtebetera %50era jaisten da. Tratamendu bat jarraituta, erretzeari uzteko aukera gehiago dago.
—Onartu den azken legea tabakoa uzteko lagungarria dela uste duzu?
—Bai, lege hau ezartzeko eskatu duen osasun arloko profesionalen taldeko kide izan naiz. Honi esker badago gutxiago erretzen duen jendea, bere adikzioaz jabetu direlako. ○
Info+: <http://www.uribekosta.org>

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OSTABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Amet's
Kamisetak eta Fotokopiak

Teléfono: 94 460 10 31
48993 ALGORTA Fax: 94 460 86 62
www.ametscamisetas.com amets@ametscamisetas.com

Abant
Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
Ikaskuntzaren zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 lanja. 48991 (Algorta-Getxo)
Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratigorta@gmail.com

irati
OPARIK MODA GAZTEA

ESKUBIDEAK KALEAN
IZANGO DITUZU 27AN

Haurdun nago eta enpresatik bota naute, legezkoa da? Etxeko langilea naiz, zeintzuk dira nire eskubideak? Seme-alaba zaintzeko lanaldia murriztea eska dezaket? Autonomoa naiz, aitatasunagatik atsedenaldia har dezaket? Horrelako galderei erantzuteko abokatu bi egongo dira Plentzian maiatzaren 27an eta ekainaren 17an, 18:00etatik 20:00etara, Astillero pasealekuan. Genero ikuspegia duten lan-eskubideei buruzko zalantzak izanez gero, informa zaitez!

KALE ANTZERKI JAIALDIA
HASIKO DA PLENTZIAN

Kale antzerkiaz gozatzeko aukera egongo da Plentzian maiatzean eta ekainean. Lehenengo emanaldia maiatzaren 13an izango da, Astilleron. Bertan egongo dira Trapu Zaharra antzerki taldeko kideak, ‘El Concursazo’ antzezlanagaz. Hitzordua 19:30ean izango da.

WEBGUNE BARRIAK
BARRIKAN ETA LEMOIZEN

Euren web orriak gaurkotu dituzte bai Lemoiz bai Barrikako Udalek. Erakunde biak Biscaytik proiektuagaz lankidetzan ibili dira webguneak barritzeko. Orain, herritarrek internet bidez izapide telematikoak egiteko aukera izango dute, beste hainbat zerbitzuren artean: eguraldiaren kontsulta egin, eskaintza kultural eta turistikoa... Helbideak honakoak dira: www.lemoiz.eu eta www.barrika.eu

PLENTZIA

Itsasoko espezieen babesgunea zabaldu gura dute



Itsasoko espezieak babesteko Euskal Herriko lehenengo gunea izango litzateke Plentziakoa

Cram Fundazioak Plentzian itsasoko espezieak babesteko Euskal Herriko lehenengo gunea zabaltzeko interesa agertu du. Kataluniako ikerlari taldeak itsas-biologian egiten ari diren ikerketak hartu ditu kontuan Plentzia hautagaien artean jasotzeko. Proiektua errazteko asmoz, bertako Udalak 3.000 metro koadroko lurzoru eskaini dio Fundazioari, Txipioko ibarrean. Oraindino zein herritan eraikiko den ez da zehaztu, baina obrak hurrengo urtean hasiko lirateke, eta babesguneak

2013. urtean zabalduko lituzke ateak. Plentziako gunea erreferente izango litzateke Kantauri itsasoan. Izan ere, mota honetako gune bakarra dago Asturiasen. Cram Fundazioaren Bartzelonako babesguneak, barriz, 16 urte daroa eremu honetan beharrean eta 500 dordoka eta 400 zetazeo baino gehiago babestea lortu du. Bartzelonan jarraitzen duten sistema berbera Bizkaiko gunera ekartzea da fundazioaren asmoa. ○

Mai. 6 - Mai. 23

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Arteskolako lanak.** Algortako Kultur Etxeko aretoan. Maiatzaren 14ra arte.
- **Filatelia elkartea.** Algortako Kultur Etxeko erakustaretoan. Maiatzaren 21era arte.

SOPELANA

- **Welcome to Palestina**, argazki erakusketa. Plaza Beltza Kulturgunean. Maiatzaren 16tik aurrera.

MUSIKA

ERANDIO

- **Dantzaldiak.** Astrabuduko Josu Murueta plazan maiatzaren 8an eta Altzagako Irailaren 23a plazan 22an, biak 17:30ean.
- **Zarzuclaren antologia.** Astrabuduko Kultur Etxean. Maiatzaren 21ean, 19:30ean. 4 euro.

GETXO

- **Iñigo Coppel.** Romoko West Side tabernan. Maiatzaren 12an, 20:00etan. Doan.
- **Jeans Jazz Band.** Areetako Glass Kafean. Maiatzaren 19an, 20:00etan. Doan.

LEIOA

- **San Isidro abesbatza eta dantza erakustaldia.** Maiatzaren 15ean.

ZINEMA

URDULIZ

- **Bilbao, historia de bomberos.** Kultur Etxean. Maiatzaren 12an, 19:30ean.

Info+: txalamobil.blogspot.com/

► **Erakusketa ibiltaria**

Txalamobil Herriz Herri, txalaparta festara

Txalamobil Herriz Herri Algortako Portu Zaharreko eta Hernaniko Txalaparta Festaren arteko bidea da. Komando Triniren ekimena da, Edurne Gonzalez eta Laurita Siles artisten egitasmoa. Txinan sortu zuten proiektua 2009an, pekindar txirindula eta txalaparta nahastuz. Ez da objektu soila, “*bizitzari aurre egiteko jarrera osasungarri eta sortzailea* baizik”. Egitasmoa maiatzaren 18an abiatuko da Algortako Portu Zaharretik 12:00etan, eta Hernanira bidean, kostaldeko bederatzi herritan lotuko da hiru eguneko bidaian zehar, herritarrek txalapartaren soinuaz bustitzeko: Getxo, Plentzia, Armintza, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Zumaia, Zarautz eta Usurbil.

• **Non:** Algortatik Hernanira • **Noiz:** Maiatzaren 18tik 21era

GETXO

- **La carta certificada. Jatorrizko bertsioan eta azpitoluakaz.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 13an, 21:00etan. 2,90 euro.
- **Rango.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 15ean, 17:00etan. 2,10 euro.
- **Zine-kluba: Pan negre.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 20an, 21:00etan. 2,90 euro

ERANDIO

- **El discurso del rey.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzaren 15ean, 19:30ean. 2 euro.

BERANGO

- **Planet 51.** Berango Antzokian. Maiatzaren 22an, 18:30ean.

PLENTZIA

- **80 egunean.** Goñi Portalen. Maiatzaren 24an, 19:00etan.

ANTZERKIA

LEIOA

- **Plecs, zirkoa.** Kultur Leioan. Maiatzaren 7an, 19:00etan. Umeeek 5 euro, nagusiek 10 euro.

PLENTZIA

- **El concursazo, Tratu Zaharra taldea.** Astilleron. Maiatzaren 13an, 19:30ean. Doan.

GETXO

- **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Maiatzaren 13an, 19:00etan. Doan.
- **Amor al fresco. Luna taldea.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 14an, 19:00etan.

SOPELANA

- **Gloriaren abestia, Khea Ziater taldea.** Kurtzio Kultur Etxean. Maiatzaren 14an, 20:00etan. 3 euro.

BESTEAK

ERANDIO

- **Kanpomartxo.** Asuan. Maiatzaren 8an, egun osoko jaialdia.
- **Hitzaldia: Ciberbulling.** Tartanga ikastetxean. Maiatzaren 13an, 18:30ean.
- **Abitigarra mendira txangoa, Erandioko mendigoizaleak taldeagaz.** Maiatzaren 14an.

PLENTZIA

- **Ikasteko gela.** Liburutegian. Maiatzaren 14, 15, 21, 22, 28 eta 29an, 10:00etatik 14:00etara.
- **Jaietarako kartel lehiaketaren sari banaketa.** Goñi Portalen. Maiatzaren 13an, 19:00etan.

GETXO

- **Bizkaiko Dantzari Eguna.** Fadura kiroldegiko rugby zelaian. Maiatzaren 15ean, 11:30etik 14:00etara. Doan.

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROZKEO edota BEROTZKEO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



[albuma]




Skaterokeriak

Apirilaren 16an jaialdia antolatu zuten La Kantera skate eskolako lagunek, izen bereko skate parkean, Arrigunaga parean. Haur eta gaztetxoek txapelketa egin zuten arratsaldeko lehen orduetan, eskualdean skateak harrobia baduela erakutsiz. Ondoren, nagusiek grabitatea desafiatu eta skateroen 'erokerien' erakustaldia izan zen. Egunari txapela jartzeko, kontzertuak antolatu zituzten La Kanterakoek.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

Zuri-beltzetik

“Somorrostro zain gorria”

‘Zubi esekia’-ren postala ezberdina izango da hurrengo hiletatik aurrera. Bizkaiko zubirik dotoreenak beltz klasikoa utzi eta “Somorrostro zain gorri” kolorea jantziko du aurrerantzean. 1893. urtean eraiki zuten Bizkaiko Zubiaren egiturak hainbat kolore izan ditu historian zehar, gris eskalakoak batez ere. Argazki zaharretan, baina, zubia zuri beltzean agertzen zaigu beti, alboko argazkian bezala, eta kolore guztiak zuri, beltz edo gris bihurtzen zaizkigu. Egituraren kolorea igarri ez arren, garai hartako bizimoduaren koloreak argi ikus daitezke: zaldiak zubi gainean, sardinerak eserita, erretzaileak... Bizimoduaren kolorea ere nabarmen aldatu da, ezta?

[berbetan]

Maiatzaren 22an, paper zatia gutunazalean sartu eta hauteskontzietara botatzeko gonbidapena egin digute. “Demokrazioaren jaia” delakoaren inguruko hausnarketaren bila jo dugu Ander Iturriotzengana (Ordizia, 1961). EHUKo Soziologia Saileko irakaslea aski ezaguna da hauteskunde garaian komunikabideetan analisiak egiteagatik. Apirila erdialdean jo genuen beragana, galdera asko oraindino airean zeudela. Ikasturte honetan martxan jarri den *Euskal Nazionalismoa XXI. mendean* masterraren arduradunetako bat ere bada Iturriotz; hori gutxi balitz, urtebete pasatxo daroa Euskal Idazleen Elkarteko presidente. Berbeta gaiak ez dira falta horrelako gizonagaz.

Ander Iturriotz

Euskaldunon jokamoldeari begira

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Udal eta Foru hauteskundeak. Gu udalekoei begira jarriko gara; zer ezberdintzen ditu Orokorretatik edo Erki-degokoetatik?

—Botere esparruari begira ezberdintzen dira. Horrek markatzen du hauteskunde bakoitzaren izaera. Estataletan Espainiako Boterea jartzen da jokoan; Euskal Herriko hauteskundeetan lurralde bakoitzeko botereak egituratzen dira, azpian Aldundiak eta horien azpian udalerrietakoak. Teorian behintzat hauteskunde bakoitza planteatzean, eztabaidak oso ezberdinak dira; Espainiari edo Frantziari begirakoak direnean, eztabaida Estatuaren egituraketa da. Horietan normalean, alderdi estatalistek hartzen dute “chance” handiagoa, aukera handiagoa. Abagune handiagoa ematen zaie boto emaileak erakartzeko edo mugiarazteko. Bertako hauteskundeak direnean, Euskal Herriaz ari naizenez, alderdi abertzaleek izaten dute beti ere hautesleria aktibatzeako aukera handiagoa. Hori alde batetik, ikuspegi politikotik. Herritarraren ikuspegitik, Paris eta Madril oso urruti daude, baina herriko udalak oso gertu daude eta Aldundiak

ere, neurri batean. Azkenean, herritarrak herrian bertan dituen arazoak dauzka gogoan, horregatik hauteskunde horiek planteatzen dira askoz modu populista-goan. Ez da hainbeste egoten eztabaida orokorrik edo, esate baterako, nazioari buruzko eztabaidarik gurean; gehiago izaten dira gai puntualak, sektorialak. Baina, formulazio teorikoetan horrela baldin bada ere, gure herria oraindik politikoki normalizatu gabe dago eta beti nahasten da konponente makro soziologikoa mikro soziologikoarekin. Batez ere, momentu honetan, inkognita eta

“Gure herria politikoki normalizatu gabe dago eta nahasten da konponente makro soziologikoa mikro soziologikoarekin”

erronka handi bat daukagunean era berean; hau da, Ezker Abertzalearen legalizazioa eta bakegintza proiektu hori. Horrek ere markatuko ditu hauteskundeak. Jadanik hilabete asko daramagu udal hauteskundeei begira; denbora gutxi falta da, baina oraindik hautesleriak ez du atzeman udal hauteskunde

batzuetan gaudela. Uste dut oraindik ari garela guztiok pentsatzen Ezker Abertzaleak izango duen aurkezterik, nola, Sorturen bidez Bilduren bidez, Bilduk berak aurkezterik izango duen. Beti gertatzen da hori Euskal Herrian, ildo oso politizatu eta zorionez polarizatua dagoelako. Nik uste hori konpondu bitartean nekez sartuko garela herriz herriko programetan.

—Herritarren artean behar besteko garrantzia ematen zaie udal hauteskundeei?

—Nik uste dut hemen, esan dizudan

arrazoiagatik, 2. mailakotzat hartzen direla. Benetan botere gune inportanteak gorago daude. Foru Aldundietan antzekoa gertatzen da, baina Udal hauteskundeetan pixka bat jaitsi egiten da zera hori.

—Maiatzaren 22an zer-nolako parte hartzea espero duzu?



—Segun eta Ezker Abertzaleak parte hartzerik daukan. Ezker Abertzaleak azke-neko urteetan modu legal batean eta modu parekide batean parte hartzea izango balu, parte hartzea handitu egingo litzateke. Eta, batez ere, Ezker Abertzalearen inguruko jendea joango litzateke gogo biziz botoa ematera.

—**Bizi dugu momentu politikoak** (su-etena, Gernikako Akordioa, ilegalizazioak e.a.) zer-nolako eragina izango du hauteskundeetan?

—Eragin nabarmen-nabarmena Ezker Abertzaleko boto emailengan izango du. Lortuko balute plataforma egoki bat eta gauzak joango balira orain arte planteatu diren heinean, nik uste dut Ezker Abertzaleak, edo hobe esanda, Bloke Soberanistak, inoiz izan ez dituen emaitzak lortuko lituzkeela. Horrek ez luke harremanik izango zuzena behintzat, udallerriekin, baizik eta politika orokorrarekin. Nik uste dut hori gerta daitekeela. Horrek ere, neurri batean, beste alderdiak ere mobilizatuko lituzke. Baina nik uste dut irabazteko guztiak Ezker Abertzaleak edo Bloke Soberanistak izango lukeela. Eta galtzeko guztiak ere bai, eta hori Madrilen badakite.

—**Hauteskundeak gizartearen nahiaren isla erreala direla uste duzu?**

—Isla zuzena ez, baina mendebaldeak arazo politikoak konpontzeko aukeratu duen sistema hori da. Niri beste batzuk askoz eraginkorragoak eta askoz gertuagokoak iruditzen zaizkit, baina hori da daukagun sistema, eskusiboki. Sistema hori oso formala da, oso zurruna eta oso hotza. Herritarrari bakarrik botoaren bidez parte hartzeko aukera ematen dio eta neurri horretan daukaguna da. Hala ere, zentzu horretan, gure errutina eta ohitura demokratikoak oso txiroak dira; tradizio demokratiko zabalagoa duten herrietan hauteskundeekin batera etengabe egiten dira galdeketak, erreferendumak eta partaidetza guneak sortzen dira, ez hemen bezala, partaidetza udalek bul-

tzatzen dutela eta gero nahi dutena egiten dutela emaitzekin. Alegia, muntatzen dugu show moduko bat partaidetzaren ingurukoa modan dagoelako, baina gero ez da erabakigarria; gure arteko politikari eta alkate batzuk esaten dute, guk galdeketa bat egingo dugu, baina gai oso puntualerako, adibidez ze kolorez pintatuko dugu ospitale bat, baina gero guk eraba-

“Plataforma egokia lortuko balute, Bloke Soberanistak inoiz izan ez dituen emaitzak lortuko lituzke”

kiko dugu, gu garelako herriaren ordezkariak. Tranpa asko daude eta tranpa horiek Ipar Europara joko bagenu ulertezinak lirateke eta horrek esan nahi du asko aldatu behar dugula errepresentazio sisteman eta partaidetza sisteman.

—**Beste sistema batzuk aipatzen dituzu; zeintzuk ikusten dituzu egokien?**

—Demokrazia sortu zenean, Estatu Batuetan esate baterako, Alexis Toquevillek oso ongi kontatzen zuen. Hango demokrazia, fundamental, herri bilkuretan antolatzen zen eta horiek subirano oso ziren eta horiek aukeratzen zituzten ordezkariak, baina bakarrik ordezkari moduan. Subiranotasuna beti herriarena zen eta herriak beti zeukan potestadea ordezkari horiek beraien aginduak betetzen ez bazituzten momentuan kargu

“Argi dago ezin dela herriaren subiranotasuna ebatzi lau urterako; sistema dinamikoagoa izan behar da ”

gabetzeko. Ez dut esango filosofia asanblearioa planteatzen denik, baina argi dago ezin dela herriaren subiranotasuna ebatzi lau urterako; uste dut horrek dinamikoagoa izan behar duela eta partaidetza ahaleginak ez ezik, kontrol mekanismo zorrotzagoak ere izan beharko lituzke subiranoa den herritarrak.

—**Argi ikusten ari gara komunikabideek hauteskundeetan izaten ari diren zentraltasuna; nolako mezuak espero dituzu kanpainen?**

—Alderdiek beti erabiltzen dituzte hedabideak beraien irudiak eraikitzeko eta saltzeko; hori sistema honen barruan dago. Politikagintza izugarri espektakularizatu da eta gaur egun ez dago eztabaida-

rik ez dago aurrez aurrekorik eta gehiago dira hedabideen aurreko antzezpenak; marketing politikoa, merkadoteknia eta horrelako terminoak erabiltzen dira. Horrek horrela jarraituko du daukagun kultura daukagulako. Ematen du kultura hau areagotu egingo dela modernitatean; aurreko Kataluniako hauteskundeak ikusi besterik ez dugu. Denok uste dugu Katalunia dela modernitatearen paradigma eta aurreko hauteskundeetan espektakularizazioak izugarrizko jauzia eman zuen. Alegia, Estatu Batuetako teknika latzenak erabili ziren. Honek horrela jarraituko du sistema horrela antolatu dugulako eta digutelako. Hedabideen tratamenduak ere berdin jarraituko du. Hedabideen neutraltasunik ez dago, inoiz ez da egon, hori ere beste falazia bat da.

hedabideak dira nagusi). Hemen, Espainiakoak eta horiek beraien interesak defendatzen dituzte goitik behera. Bien bitartean, euskal nazionalismoak dauzkan hedabide guztiek, proiektu nazionalistak defendatzen dituzte. Hor orain arte zegoen EITB, baina badakigu EITB zer bilakatu den PSOEren eta PPren eskutik. Hor ere ez dugu ustekaberik izango.

—Hauteskundeak alde batera utzi eta *“Euskal Nazionalismoa XXI. Mendean”* masterrari helduko diogu. Nolako izan da lehenengo balorazioa?

—Lehendabizi esan behar da master hau ateratzeko izugarrizko lana eta ahalegina egin behar izan genuela; hain zuzen ere, jendeak ez badaki ere, Euskal Herriko Unibertsitatean antolatzen diren master eta postgradu kurtso guztiak Madrilen onartu behar direlako. Madrilen eskakizun batzuk dituzte eta horiek bete behar dituzu, burokrazioa handia. Horrek erakusten du zein nolako dependentzia estrukturala daukagun, baita EHU ere. Urte oso bat pasa da hasi ginenetik eta balantzea egiteko datu askorik ez badugu ere, inpresioa oso-oso positiboa izan da. Batez ere, kontuan hartuta, euskal nazionalismoa eguneroko eztabaida gaia den honetan, apenas egon dela sistematikoki euskal nazionalismoa tratatu duen post-

gradurik EHU. Euskaraz izanda, salbuespena egin dugu atzerriko irakasleekin eta ekarri ditugu irakasleak Italia, Irlanda, Espainia edo Kataluniatik. Nik uste dut nekez errepikatuko dugula izan dugun esperientzia. Jende oso interesgarria pasa da hemendik, ez bakarrik nazioartetik; Euskal Herrian nazionalismoari buruz idatzi eta pentsatu duen ia jende

“Euskal nazionalismoa eguneroko eztabaidagai den honetan, apenas egon da hori landu duen postgradurik”

guztia izan dugu hemen. Hasi klasikoe-tatik, Jokin Apalategi bat, fundamental euskal nazionalismoaren ardatza ulertzeko eta gaur egun, lanean dabiltzanak, Iñaki Galfarsoro adibidez. Oso aberasgarria izan da. Zentzu horretan pozik gaude. Datorren urtean ikusiko dugu hau oso garestia delako eta EHUK finantziazio oso gutxi dauka. Estrukturalki badauzkagu arazo asko, batzuk politikoak eta beste batzuk ekonomikoak; baina saiatuko gara aurrera egiten. Ikasleak oso pozik daude. Doktore tesi batzuk inskribatu zaizkigu; honek jarraipena du, hori da nahi genuena. Gure helburua ez da master bat egitea, gune bat sortzea baizik.

—**Masterra aurkeztean azaldu zenuten beti kanpotik landu izan dela euskal nazionalismoa eta zuek barrutik landu nahi zenutela.**

—Hori esan genuen garai batean, baina ez zentzu horretan. Gure zentzua akademikoa zen. Alegia, gaur egun euskal nazionalismoa hitzak sartzen badituzu interneten daukazun lotura gehienak

euskal nazionalismoaren kontrakoak dira. Madriletik piloa eta Madrilen babesean mugitzen den jende batena. Euskal Herrian hori badago egon, baina beste parte bat ere badago. Eta beste parte horrek ez dauka bat ere lekurik, ez da existitzen. Horregatik, horri buelta eman nahi genion, horrek ez duelako esan nahi hausnarketa egin ez denik. Aspaldi daragugu hausnartzen eta oso puntako proiektuak egin dira. Proiektu horiek gainera praktikoak izan dira eta gure nazioak bizirik dirau praktikarekin batera teorizazio etengabea egin delako. Baina, hori guztia, ardazteko beharra zegoen eta horri guztiari espazio bat emateko beharra zegoen. ○

Euskal Idazleen Elkarte: txiro baina osasuntsu

—**Euskal Idazleen Elkarte**ko lehendakari moduan urtebete pasatxo daramazu. **Zer-nolako esperientzia izan da?**

—Egia esan, niri urte gogorra egokitu zait. laz krisiaren joaldi basatia izan genuen eta geneuzkan finantziazio bideak ez agortu, baina asko jaitsi zitzaizkigun. Gure elkarteak programen bidez lortu ditu diru-laguntzak beti. Guk idazleak bidaltzen ditugu ikastetxetara, idazle horiek lan egiten dute eta guk horregatik kobratzen dugu; ez da finantziazio orokorra, programen arabera

baizik. Hori da gutxitu zaiguna; Eusko Jaurilaritzak, ezer esan gabe, Hezkuntza Sailak 100.000 euro jaitsi zigun urte batetik bestera. Niri egokitu

zait hau kudeatzea eta zuzendaritzako kideok lan izugarria egin behar izan dugu gastuak razionalizatzeko. Azkenean ondo atera da urtea, baina, ozta-ozta.

—**Ekoizpen aldetik, euskal literatura ondo dagoela dirudi, kanpotik behintzat.**

—Nik esango nuke oso osasuntsu dagoela. Arlo guztiak jorratzen dira, produkzio izugarri interesgarriak sortzen zaizkigu etengabe, nobelagintzan, ipuingintzan, poesian... Aurten loraldi indartsua egon da euskal literaturak zeukan hutsune batean: saiakeragintza. Saiakera garrantzitsuak argitaratu dira eta horrek erakusten du normalizatzen ari dela eta beste herrialdeetan egiten den guztia egi-

ten ari dela kalitate oso handian. Kalitateari dagokionez ez dugu inongo zorrik literatura unibertsalarekin. Beste gauza bat da zein merkatu daukan euskal literaturak eta horrek, hizkuntza gutxitu baten merkatura eramaten gaitu. Hori ezin da epe laburrean aldatu. Hiru belaunaldi ditugu momentu honetan lanean eta bakoitza bere emaitzekin; garai batean hiru-lau idazle ezagun zeuden, baina hori horizontalizatu egin da. Interesgarria da irakurle klub

fenomenoa ere; horrek erakusten du euskal literaturak badaukala erreferentzialtasun bat. Oso azpitik sortu dira, herri mugimendutik, modu autonomoan, interes hutsagatik eta gauza oso interesgarriak egiten dira.



Milaka euskalakari!

Beste bat joan da, hamazazpigarrena, eta Uribe Kostak ez du hutsik egin, zorionak euskalakariok! Apirilaren 16an zeharkatu zuen eskualdea Korrikak, Erandion sartu zen goizeko 08:50ean eta Lemoiz utzi zuen bost ordu beranduago. Asier Mentxakak, UK-ko argazkilariak, ere ez zuen kale egin eta bere kameragaz harrapatu zituen euskalakari guztiak, lekukodunak banan-banan erretratatuaz. Orriotan zaudete denak, jakin badakigu-eta irrikaz espero dituzuela irudiok urte bian behin. Gozatu itzazue eta bihar ere jarraitu Korrika, euskararen bidea eginez!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**











Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra

Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Zuzendariak hizlari

Euskal **zine zuzendarien** elkarriketak **Zeluloidezko begiradak** liburuan



Liburuaren azala

Hamahiru euskal zine zuzendari elkarriketatatu ditu Mikel García Idiakez (Irun, 1980) kazetariak eta *Zeluloidezko begiradak* liburuan batu ditu. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Tene Mujika sariari esker idatzi du; iaz irabazi zuen.

“*Egindako film edo beraien estilo pertsonal eta bereziarekin, Euskal Herriko zinemaren bidean zinegile garrantzitsuak direlako*” aukeratu ditu zuzendariak: Asier Altuna, Telmo Esnal, Antxon Ezeiza, Helena Taberna, Juanba Berasategi, Julio Medem, Montxo Armendariz, Imanol Uribe, Fernando

Larruquert, Nestor Basterretxea, Koldo Almandoz, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga.

“*Ba al da euskal zinemarik? Zer da, baina, euskal zinema?*” galderagaz abiatu ditu elkarriketak. Baina liburuan ez duzu topatuko erantzun bakarra. Kontrara, erantzunen aniztasuna ikusita, “*euskal zinemarik den edo ez den ez*

“Euskal zinemarik den edo ez, erantzun bakarra ez duzu topatuko”

daki” García-ak, “*baina behintzat bada euskal zinemagintza jorratu dutenen ibilbide bat*”. Zuzendari beste begirada dago, eta 13 horienak ezagutuko ditugu liburu honegaz. Baina gai askori buruz aritu da zinegileakaz.

“*Dena esan dezake zinemak, osotasun handiena du artistikoki eta komunikazio modu onena da, erritmoarekin, hitzekin, argi eta itzalekin... leku bate-tik bestera eramaten zaituelako, berak nahi duen bidea jarraituz. Beste arte diziplinek ez duten abantaila handi bat dauka gainera: leku ilunean ikusten dira pelikulak eta, aretoa beteta egon arren, harreman intimoa, zuzen-zuzena, sortzen da ikuslearen eta pantailaren artean*”. Horrela hasten da *Zeluloidezko begiradak*, orain zure txanda da... ○

Sirokaren bigarrena, berezia

Indartsu dator Sirokaren bigarren lana, diskoa eta liburua dauzka eta interneten jaitsi daiteke



Getxoko San Isidro jaietan aurkeztuko dute bigarren diskoa

Taldea sendotuz doa eta sorpresa eman dute bigarren lanagaz, dagoeneko kalean da *Karosi* disko-liburua. Ekaitz leioztarra, Pepo erandioztarra, Maria (Balmaseda) eta Gorkak (Ugao) osatzen dute Siroka.

Bederatzi gaik osatzen dute *Karosi*. Gaia diogu, horietako bakoitzagaz abestia eta ipuina egin dutelako: “*Lehentasunak dira gai horiek eta abestien zein istorioen bitartez deskribatu ditugu*”. Horren emaitza dira 9 ideia, 9 abesti eta 9 istorio. Nortasuna, gozamina, adiskidetasuna, hizkuntza, askatasuna, borroka edota maitasuna bezalako lehentasunak dituzte

eta euren istorioetan barneratzen lagundu-ko dute Karosi eta Rosika protagonistek.

Baina berezitasun gehiago dakar *Karosi* lanak. Izan ere, abestiak taldearen webgunetik jaitsi daitezke doan internet bidez (www.sirokataldea.com), baita sake-lakotik ere, QR kodearen bitartez.

Abesti barriak entzuteko aukera daukazu Getxoko jaietan maiatzaren 14an, eta laster datozen beste hainbat kontzertutan. Esan bezala, indartsu dator Siroka... Indar bera erakutsiko al dute taula gaine-an? Getxora hurbildu eta egiaztatu! ○

www.sirokataldea.com

diskoak

Harpa airean
Ane Artetxe
Gaztelupeko Hotsak



Ane Artetxe harpa irakasle donostiarrak sortutako ekimena da *Harpa airean*. Bi atal ditu, diskoa eta harpa modu ludiko eta entretenigarrian jotzen *ikasteko metodoa*. Diskoan 29 pieza daude: konposaketa klasikoak, doinu herrikioiak eta zinematik hartutako piezak. Biak apaintzen dituzte Patxi Gallegoren ilustrazioek.

Itxaropenaren ertzean
Jare
Oihuka-Elkar



Euskarazko rockaren talde barria dugu Jare, eta esperientzia eta gaztetasuna biltzen ditu. Mikel eta Gorka Bizar anaiak (Idi Bihotz eta Flynn’Freak ohiak), Jagoba Ormaetxea eta Iñigo Benito (Autostereo), eta Kepa de Miguelek osatzen dute. Hard rock, pop eta rock alternatiboaren artean kokatu beharko litzateke.

Flores secas
El arca de Noelia
Baga Biga Produkoizkoak



Lehen diskoa du *Flores secas* El arca de Noelia taldeak. Pop-rock estiloa lantzen dute, eta Patriciaren ahots femeninoagaz, rock zaleen sentikortasuna erakusten dute. Norberaren bizitzaren uneraren batean senti daiteke El Arca de Noelia taldeak kontatutakoa zeurea ere badela, izan ere, maitasuna da beraien hizkuntza.

www.erandio.net

erandio >

dantzaldiak

Dena ez da rock, pop, heavy edota hardcorea musika munduan. Guztiok gozatzen dugu musikaz eta askotariko kontzertuak izan ohi dira Uribe Kostan ere. Horietako batzuk ekarri gura ditugu lerrootara, nagusientzako dantzaldiak, hain zuzen ere. Nagusiak joan ohi dira normalean, baina edozeinek pasa dezake oso ondo. Erandion ohitura handia dago orkestrek girotutako dantzaldiak egiteko, hilero izaten dira horrelakoak, maiatzaren ere bai. Altzaga auzoan hilaren 8an izango da dantzaldia Irailaren 23a plazan, Udaletxe aurrean; Astrabuduan, barriz, maiatzaren 22an izango da Josu Murueta plazan. Biak hasiko dira 17:30ean.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Eskol Horria kaleko 8a)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41
Algorta

[literatura]

Fantasiari atea zabaldu

Eztena.org sortu da, **fantasia eta beldurrezko literatura** sustatzeko

Literatura ez duzu topatuko liburuetan bakarrik, hori baino askoz gehiago da. Gainera, sormen literarioa zabaltzeko tresna oso eraginkorra bihurtzen ari da internet. Asier Mendoza zarauztarrak, horren jakitun, aukera baliatu du beldurrezko eta fantasiazko euskarazko literatura bultzatzeko: www.eztena.org webgunea sortu du.

Baina norabidea alde bietarantz denez, sormena zabaltzeagaz batera, idaztera ere bultzatu gura du Mendozak. Webgunean argi utzi du ez dela intelektual itxurarik izan behar idazteko, edonork sor lezake gura izanez gero, eta internetek aukera eskaintzen du irakurtzeko, idazteko... gura dena egiteko, “*edonork argitara baitezake edonon*”.

Ipuin bat ere sortuko dute askoren artean, gura duenak bidal dezake testua

Euskarazko irakurleei eztena sartu gura die horrela, zirikatatu eta irakurtzeko modu asko dagoela erakutsi: “*Fantasiak zein beldurrezko idazkiak aitzakia hartuz irakurleak tentatu egin nahi ditugu gure poema eta narrazioekin*”.

Ildo horretan, hainbat aukera eskaintzen ditu guneak; testuak ordenagailuan



Bisitatu: www.eztena.org

irakur daitezke, baina paperean edo liburu moduan irakurtzea gurago baduzu, PDF bertsioa inprimatzea daukazu edota *e-book* gailura jaitzi.

Bestalde eta parte-hartzea helburu, egitasmo bitxia abiatu du: Babel. Askoren artean ipuin bat osatuko dute eta edonork parte har dezake. Ez dute ipini ez mugarik ez araurik, gura dena idatz daiteke. Mendozak hitz eman du ez dutela hozkarik egingo, “*agian eztenaz xaxatu, besterik ez...*”. Lehen hitzak idatzita daude, hurrengo kapituluak zure esku egon daiteke; eztena2011@gmail.com gunera bidali testua, “*kontakizun oro delako dena eta eztena*”. ○

liburuak



Mea Culpa
Uxue Apaolaza
Elkar

Eguneri batean Mikelen argazkia ikusi eta Lurri gaztetako mamuak esnatzen zaizkio. Gurasoek Landetan duten oporretako etxera joatea erabakiko du, beka baten laguntzaz idatzi behar duen eleberria amaitzera, bidaia ikaskide ohi bategaz egin behar badu ere.



Sexualitatea xirikatuz
I. Porras / M. G. de Vicuña
Erein

Xirika Gazte Aldizkariak Emaize Sexologia Zentroko 2004 eta 2008 arteko sexologoek idatzitako argitaratu ditu. Bakoitzak bere burua ezagutu, onartu eta modu positiboan adierazteko bide bezala ulertzen dute sexualitatea eta hori da, hain zuzen ere, liburuaren xedea.

[kirola]

10 urte harrobia egiten

5 eta 12 urte bitarteko umeak futboleko hezten jarraituko du **Barrikako Eskolak**



Lau talde ari dira egun futboleko Barrikan

Barrikako eta inguruko herrietako umeentzako aisialdi eskaintza handitzeko asmoz, 2000. urteko maiatzaren 13an Barrikako Futbol Eskolak atea zabaldu zituen lehenengoz. Hamar urte geroago, ateen parez pare zabalik jarraitzen dute, eta bertatik hamaika neska-mutil igaro da. Futbol Eskolako arduradunek zehaztu dutenez, Klubean 5 eta 12 urte bitarteko ehundaka ume parte hartu du: “*Inoiz ez dugu umerik baztertu, kirol taldean parte hartzeko interesa izan duten guztiak onartu ditugu*”. Futboleko aritu gura dutenek izena emateko aukera izango dute maiatzaren eta ekainaren.

Futbol taldea baino gehiago, Eskola bezala lan egiten dutela nabarmendu gura izan dute Barrikako lagunek: “*Taldeari garrantzia ematen diogu batez ere, umeek taldeko kide sentitu behar dute euren burua eta kolaboratzearen erantzukizuna hartu*”. Horrez gain, Eskola osatzen duen lan-taldea ez ezik, hamar urtean zehar izan duten laguntza eskertu dute Futbol Taldeko kideek: gurasoena, entrenatzaile-

ena, jokalariena, zuzendaritzako kideena... “*Denon laguntzagaz, Eskolagaz urte asko jarraitzea espero dugu*”.

Egun, Barrikan lau futbol talde daude osatuta, bost entrenatzailearen gidaritzapean. Era berean, Futbol Eskolara 60 bat ume joaten da. Eskolaren lehentasuna ez den arren, Athleticoko Eskolara ere joaten

Futbol 11-ko taldeak osatzea izango da taldearen erronka nagusia

dira, proiektzioa izan dezaketen umeek bertan egoteko aukera izan dezaten. Horregatik, Kluba sasoiaren dagoela aprobetxatuta, bultzada barria emon eta hurrengo urteetan asmo handiko erronka izango dute: futbol 11-ko taldea osatu. Hurrengo hiru urteetan helburu hori lortu gura dute, hiru kategoriatan: umeak, kadeteak eta gazteak. Ekainaren 25ean, bestalde, txapelketa antolatu dute Barrikako jaietan, eta besteak beste, honakoak egongo dira: txistorrada, Athleticoko jokalarien presentzia, sari banaketa... ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Xavi Sarrià > Obrint Pas musika taldeko abeslaria

“Egoeragaz apurtu gura duten valentziar gazteen indarra irudikatzen dugu”

Disko barria aurkeztuko du Obrint Pas Valentziako musika taldeak Getxoko San Isidro jaietan, maiatzaren 14an. Xavi Sarrià abeslariagaz berba egiteko baliatu dugu aitzakia, izan ere, Txalapartak laster argitaratuko du *Histories del paradís* bere liburua gazteleraz.

—Getxon joko duzue, jarraitzaile asko daukazue Euskal Herrian.
—Aspaldi daukagu harremana Euskal Herriagaz. Gaztetan Negu Gorriak taldeagaz jo genuen, eta garai hartako euskal musika erreferente genuen. Urteen joanagaz, ideologia edota musika-kidetasunagatik talde asko ezagutu dugu. Horrek eragin du Euskal Herrian jotzen hastea eta oso pozik gaude euskal entzulegoaren erantzunagaz eta harreragaz.

—**Disko barriaren kantuak entzun ahal-ko dira Getxon?**
—Bai, diskoa aurkezteko biran murgilduta gabilta. Andoingo Garate estudioan nahastu dugu disko erdia, disko-liburua da eta 15 kantu dauzka. Gure estiloa da, baina gure musikak garapena jasan du, logikoa denez. Oso gazte hasi ginen eta esperientziek eragin dute gure musikan, talde guztietan bezala. Hainbeste urte eta gero betiko bidean jarraitzen dugu, herri-musika eta kulturagaz bat eginez, baina ezagutu ditugun kulturaren eragina ere nabaritutako da.

—*Obrint Pas*, edo euskaraz, bidea eginenez, baina ez da izen hutsa...
—Obrint Pas Valentzian sortu zen, testuinguru jakin batean bizi zen gazte talde batean: katalanez ikasi genuen lehen belaunaldietakoak gara. Gure hizkuntza normaltasunez bizi izan dugu beti, horre-



Maiatzaren 14an joko dute Getxoko San Isidro jaietan, Sirokagaz batera, 22:00etatik aurrera

la hazi gara, eta horregaz batera, herri baten ideia-gaz, eraiki gura dugun mundu desberdin baten ideia-gaz. Bizi dugun egoeragaz apurtu gura duten valentziar belaunaldi gazteen indarra irudikatzen dugu, bestelako egoera eraiki gura dutenena.

—Hizkuntza gutxitu batean abesten

“Erronka izan zen hasieran, gutxik abesten baitzuten katalanez; baina ilusioz, aurreiritziak eta mugak gainditzeko gogoz hasi ginen”

duzue, baina hori ez da izan muga, zuen musika mundu osora heldu da-eta.
—Erronka izan zen hasieran, gutxik abesten baitzuten katalanez. Baina ilusioz hasi ginen, aurreiritziak eta inposatutako mugak gainditzeko gogoz. Hizkuntza gutxituak ezagutzen dutenentzako direla esaten ziguten, besteen-

gana ez ginela iritsiko, baina ingelesagaz ez zuten horrelakorik planteatzen, eta aurreiritziak lurperatu ditugu.
—**Gaia aldatuz, Txalapartak zure liburua argitaratuko du gazteleraz, nolatan?**
—2008an kaleratu nuen katalanez, baina munduaren gure ikuspegi bera daukatenakaz konpartitu gura dut.

Txalaparta argitaletxe sendoa da eta bestelako literatura bat ordezkatzan du. Euskal Herrira eta Estatuko bestelako tokietara joateaz pozik nago. Istorioak mundu osoan aldi berean gertatzen dira, nire ikuskera duten mundu osoko gazteakaz konektatzen du, ez da kataluniarra izan behar istoriook ulertzeko. ○

Fredi Paia

Moro edo jentilek

Uzen bi horreek erabiltzen dira gure lurraldean kristautasuna su eta odolez inposatu aurreko erlijino zaharra praktiketan eben arbasoei esateko. Moro berbaren atzean dagoan Mairu berbea Islama baino askoz lehenagokoa da. Eta gaur, lehen legez, kristauak ez diranei deitzeko erabiltzen da. Horren sinonimoa da jentil, edo Berangon batu dogun moduan, *jintil* berbea. Bibliak juduen jainkoan sinesten ez ebenei esateko erabiltzen dauan berbea da, eta erlijino horretan oinarritutako kristautasunean sinesten ez eben arbasoei esateko erabiltzen dabe gure aitaita-amamek. Satrustegik Sakanan egindako ikerketek adierazo eta geuk Busturia, Erandio eta Barrikan kontrastatu ahal izan dogun legetxe, herri kondairek moro edo jentilen bizilekuak zirela dineuden lekuak Gaztelak Euskal Herria konkistau aurreko sasoian eregita dagoz. Eta Euskal Herriak konkistatua izan aurretik eukan izen zaharraren, Nafarroako erresumaren gotorleku eta leku sakratuak, aurreko artikulua baten *landaminak* izenagaz deskribatu genduzan baldintza berezietako para-jeak dira.

100 urteko plentziarrak esan euskun bataiatu ezik guztiok garel moro edo jentilak. Berangon *jintilek* euren burruketarako erabilitako burduntzi erraldoiaren barri emon euskuen. Erandioko Martiartu torrea moroek eregi ebela esan deuskue inguruko biztanleek. Horretarako hormak altxau ahala alde batetik lurrez estalduten ebezan, aldazio legez erabili eta altueran gora *iyen* ahal izateko. Barrikako etxerik zaharrena ei dan Ametzaga-Torretxea bere moroek egin ebela esan deuskue bertan jaiotakoek. Barrikako gaztelu zaharra, XVI. mendeko testuetan *Maguri Olaga* izenez ageri dana moro edo *maguriakaz* lotzen dabe herriko edadekoek. Kuriosoa da, leku horretan Arantzazuko fraideek orain mende erdi idatzitako “Barrica es de cristo” esaldia ageri



Jentil-koba, Gorliz

da lehenago kurtze erraldoi bat hartzen eban porlanezko oinarrian.

Gorlizen toponimian ageri da jentilen gomuta. Zabale auzoko errotondaren ondo-

«Edadekoen esanetan, jentilek eregi eben sarrera biko kobazulo hori eta gerra zibilean iheslarien gordelekua izan zan»


an dago Guzmendi. Eta mendi horren goiko aldean *jentil-baso* izeneko artadia dago, bere erdian, mendiko kukullu edo gailurrean, *jentil-landa* izeneko landamina. Guzmendi ganeko hegoaldean *jentil-koba* dago. Edadekoen esanetan, jentilek eregi eben sarrera biko kobazulo hori, eta gerra zibilean iheslarien gordelekua izan zan.

Jentilek kobazulo horretatik hondartzara doan tunela eregi eben, eta horreetara hondartzarako pasabide ezkutua eukien. Tunel berak inguruko Agerreko Andra Mari ermitara be emoten ei dau, eta bertan altxor bat lurperatu ei eben desagertu aurretik. Jose Miguel Barandiaranek induskatze behar txikia egin eban bertan, eta molusko azalak aurkitu ebazan kobazulo atarian.

Atzenez, esan dagigun gure eskualdean badala indar, abiadura edo gaitasun itzela esateko erabiltzen dan *zentaile* berbea. *Zentailelango inderra, zentaile baizen arin...* ohiko esakuneak dira gure edadekoen artean. Baleiteke berba hori erderazko *centella* berbatik eratorria izatea, baina baita bere atzean *jentil* ostentzea bere. Anton Erkorekak, bere Bermeoren ganeko lan etnografikoetan jentilen bizilekua ei zan hatx baten barri emoten deusku, Larrauritik Bermeorako bidean. Hatxari era bitara esaten jako: *Jentilatx* edo *Zenteilatx*. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezzi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK
Taberna

Mariandresena 1, Algorta



txakoli
motaTx.
txakolina

leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

WWW.UNAITABERNA.COM

94 466 16 61

URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



CAFETERIA
COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI
ORMAZTEGUI

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[gaurko**aukera**]

Romoko Gure Etxea

Jana eta jaia auzoaren erdi-erdian



Facebook-en ere topatuko duzu Gure Etxea taberna

Laster beteko 35 urte Romoko Gure Etxea tabernak, 1977an zabaldu baitzuen Jose Antonio Irustak. Auzoan betiko taberna da, beraz. Joseba semeak ere 20 urte daroa tabernan lan eta lan, eta bere kargu egingo da hemendik aurrera, aitzak erretiroa hartuko du-eta.

Betikoa eta ezaguna oso, giro handia izaten da Gure Etxean, asteburuetan batez ere. Gauz biltzen da jende gehien, baina eguerdikotean ere inork ez du hutsik egiten.

Aurrezki Kutxa kalean dago taberna eta duela urtebete ipini dute oinezkoentzat. “Oso onuragarria” izan da hori eta iaz terraza jarri ahal izan zuten. Arrakasta ikusita, aurtun hobetu eta handitu egingo dute eta estalpeak ipiniko dituzte bezero-

ak gusturago egon daitez.

Musika eta giroa... Baina duda barik, jatekoan dago Gure Etxearen arrakastaren sekretuetako bat. Ospetsuak ditu hanburesak eta pintxoak. Baina beste jaki asko ere dasta daiteke. Astelehenetik zapatara, egunero ematen dituzte bazkariak eta afariak. Kartara ematen dute eta enkargua egin daiteke edo zuzenean bertaratu; izan ere, txuleta eta bakailoa ez dira faltako, eta denboraldian itsaskiak dasta daitezke. Baina mokadu azkarra egin gura baduzu, bokatak eta razioak ere prestatuko dizkizute, gura baduzu, baita etxera eroateko ere. Jaia eta jana ez zaizkizu faltako Gure Etxean. o

Aurrezki Kutxa 14, ROMO
Tf. 94 463 68 80



Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingueraren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñu z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO


Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Oilaloken bisita jaso ostean hurrengoak ez dira gauza bera izango, baina lasai egon, laster itzuliko dira, behintzat zuk horrela gura izanez gero...

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Hauteskunde bezpera eta oraindik ez dakizu zer egin? Lasai, horretarako da-eta egun hau, hausnartzeko. Zoaz hondartzara, agian erantzuna topatuko duzu olatuen artean...

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Arnas hartzeko betarik barik hasi dira azterketak oztabere, hau paraderua! Beti bardin, gauza bat amaitu orduko hasten da gurpil zorua... Marmotaren eguna ematen du.

META

(Irailak 17 urriak 16)
Martxoan maiatz eta maiatzean martxo, zoratu egingo gara eguraldi honegatz. Eroazu mortila beti aldean; botak zein sandaliak, tirantedun kamiseta zein gabardina, ezin dira falta.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Barrio ere opor osteko depresioak jota? Oporraldi hau ez da batere luzea izan, ordea. Beti bardin zabilta, dagoeneko konturatu gara aitzakia merkea duzula alferrena egiteko...

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Herri Urratsen ajea ikaragarria izaten ari da. Oporretatik itzulera horren gogorra ez izateko joan zinen Senperera, baina konponbidea okerragoa izan da. Lasai, pasako da.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Eguzkiak eta eguraldi onak bultzatuta joango zara hondartzara. Ausart baino ausartago sartuko zara uretan, plaust! Baina, a zer hotza! Ez izan horren harroputza...

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Maiteñoagaz haserretu zara? Beti zabilzate bardin! Hoba zenuke beste bat bilatu edo zure kabuz ibili, ez duzu eta ezertarako behar. Inor ez da ezinbestekoa.

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Indartsu hasi duzu opor ostea eta oso alai. Nabari da udabarriak aztoratu zaituela, baina onerako. Gainera aurten uda di-da irisiko da, beraz, segi gozatzen!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Udabarria loratu danetik burua galduta zabilta. Horrelakoetan tximeletaz beteta izan ohi du jendeak barrua, baina zuk matxinsalto txikia daukazu, karate egiten hasi zara, ala?

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Beti zabilta kezaka, seme-alabek zer atsekabeak ematen dizuten. Baina orain zu zabilta lotu barik, hara eta hona, udabarria heldu denetik... Alproja galanta eginda zabilta!

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Udabarria aurrera doa eta elurra aspaldi urtu zen, baina negua! Zure bihotza izoztuta dago oraindik. Egiozu begi-keinu bizitzari eta aldarte hori aldatu. Irrien lagunak gara gu...



NORA

EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu

KIOSKOAN:

Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:

Harpidedun eginda, hilabetero etxean
urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:

TELEFONAZ: 943 30 35 54

POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info

WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info



HITZ GURUTZATUAK

12345678910

12345678910

Ezker eskuma

1. Trebetasuna. 2. Prometioa. Luzapen. 3. Joan den urtean. Kirolaria. 4. Ozeano Bareko uhartea, Zeelanda Berrian. Dimako auzoa. Kontsonantea. 5. Aitzina. Nork deklinabide kasuan. 6. Kontsonante bikoitza. Aizkorriko gailurra. 7. Lehenengoa. Deba ibaiaren adarra. Ipar Euskal Herrian, zoriontsu. 8. Erabat. Ardi, hitz elkartzeetan. 9. Ipar Euskal Herrian, beldurti. Egiptoko jainkoa. 10. Hautatuak.

Goitik behera

1. Ipintzera behartua. 2. Baztango herrixka. Euskal Herriko Unibertsitatea. 3. Bokala. Enborren mami. Galarazitako euskal alderdi politikoa. 4. Alkoholen amaiera. Itxuragabe. 5. Txitua. Arabako herri bateko. 6. Hegazti harapakari. Burdinola. 7. Arrisku batetik onik atera. Idi, hitz elkartzeetan. 8. Haurra. Modua. Uranioa. 9. Ipar Euskal Herrian, erabat. Idorra. 10. Anarkismoaren aldekoak.

Soluzioa

K	A	U	T	V	R	E	K	U	A
A	R		I	T	V	B	A	H	I
T	R	A		O	R	V	H	E	Z
S	O	U		O	G	E		V	
I	G	E	T	E	K	V		R	
K	V		V	B	O	E	U	N	
R	A	B	O		E	U	N		
V	T	E	T	L	V		Z	V	I
N	E	M	V	Z	U	L		M	P
A	N	U	S	A	T	O	I	A	I

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zelan du izena Berbetan ataleko elkarrizketatuak?

> Aurrekoaren erantzuna: Pasioa

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

NORA

hilabetekariaren sei hilabeteko harpidetza doan

Zein pailazo elkarrizketatu dugu Aitormenak atalean?

> Aurrekoaren erantzuna: Ipurbeltz

> Irabazlea: **Ander Sarasketa***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

BERRIA

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



BENE MARKAIDAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

SOPELAKO ESKOLAKO MUTIKOAK, 1942

San Pedro elizaren alboan zegoen eskola "nazional" (horrela deitzen zioten orduan) hau eta alde horretakoak ziren goiko ikaslerik gehienak baina asko falta dira argazkian, 50 edo gehiago zeuden matrikulatuta eta guztiak ez ziren, jakina, elizaren ingurukoak. Maisua, Ambrosio Apellaniz, arabarra zen. Diktaduraren hasierako urteak ziren, gogorrak arlo guztietan. Horregatik pentsa daiteke argazkiko mutiko ezezagun biak bilbotarrak izan daitezkeela. Sasoi hartan udatiar batzuk Sopelan geratzen ziren neguan ere, janaria eskuratzea errazagoa zelako baserrian Bilbon baino. Gaur egun argazkiko zazpiren bat edo bizirik daude. o

Zutunik: Iñaki Libano "Loroñonekoa", Joseba Legarra "Atxondo Barrikoa", Manolo Zabala "Eleizaldekoa", Jose Lugaresaresti "Sagondo Erdikokoa", Ponciano Aio "Larrondokoa", Alberto Ansoleaga "Aldekokoa", Meltxor Legarra "Atxondo Barrikoa", Felix Gonzalez "Palazio Barrikoa", Aurelio Intxaurtieta "Armurukoa".
Erdian: Enrike Legarra "Atxondo Barrikoa", Iñaki Elorriaga "Palaziokoa", Joserra Mier "Landabekoa", Antonio Elorriaga "Palaziokoa", Jose Luis Basterretxea "Eleizaldekoa", Imanol Landa "Toki Ederrekoa", Julito Fernandez "Bareño Barrikoa", Fernando Ansoleaga "Aldekokoa", ??.
Aurrean: Juan Mari Larrinaga "Loroñonekoa", Jose Benito Uria "Manenekoa", Jose Mari Aristegi "Manenekoa", Jose Antonio Apraiz "Quintananekoa", Pablo Gonzalez "Palazio Barrikoa", Pedrito Iraguen "Zipiriñekoa", ??.

MIRRI JUNIOR > pailazoa

“Norbaitek arrautzaren gorringoan ogia sartzea ez dut barkatzen”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Oso moñoña naiz, pretziosa, zintzoa, bihurria, maitakorra, sinpatika, guapa, katxas-katxas, top-model eta hori bai, umila oso.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Superman, Batman edo Spiderman, super-heroiak bezalakoa naizelako.

Hautzaroko oroitzapen bat?

Amona Martxelonen bizkotxoak!

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Sukaldari, dena jateko; edo atrakzio parkeko arduradun, denetan igotzeko; irakasle, haurrei bihurrikeriak egiten irakasteko...

Badaukazu ohitura txarren bat?

Nik? Mesedez! Ez, ez eta ez!

Aitor dezakezun bizio bat.

Txuleta eta bideojokoak.

Zein da zure ametsetako bat?

Futbolean lehen mailako pailazo entrenadore izatea eta lehendakari.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Txiribiton, hipopotamoak bezalakoa delako!

Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Sermoiak botatzea, ni guapatzat ez hartzea, tortilla pintxoaren puntta lapurtzea edo arrautza frijituaren gorringoan norbaitek ogia sartzea!

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Bai, noski! Ninja dordokak!

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?

Kar, kar, kar! Txirriri pikantea jarri genion purean Txiribitonek eta biok!

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Zaila... akuaparkak, Igeldoko parkea, Amona Martxelonen etxea... o

LABURREAN— Nolako egurra, halako ezpala! Elkarriketan ikusi duzun legez, Mirri bezain bihurria edo are ganberroa-goia dugu Mirri Junior pailazo gaztea. Kattalin Ansorenak (Donostia, 1986) gorpuzten duen pertsonaia 2005. urtean igo zen lehenengoz oholtzara, Elgetan, eta geroztik Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatu ditu Txirri eta Txiribiton Juniorregaz batera. Egun, “Barre Egin” euren bosgarren biragaz jo eta su ari dira haurren aurpegietan koloretako irriak margozten. Hirukote gaztearen adar-jotzeak ikusi gura dituenak Berangon izango du aukera maiatzaren 7an, arrastiko 18:30ean Santa Anako Antzokian. Argi ibili Mirri Junior eta bere lagunen bihurrikeariakaz!

Getxo ezagutzeko bizikletaz



Ezagutu nahi duzu Getxoko flora, fauna, paisaia, aspaldiko lanbideak eta hori guztiori zelan ageri den Getxoko izenetan?

ETORRI BISITA GIDATUETARA!



• BETIKO GETXO •

MAIATZAREN 14an, GOIZEKO 9:00etan ANDRA MARIKO ELIZAn

BASERRIA eta KOSTALDEA

Getxoko kostaldea eta baserri ingurua ezagutzeko ibilbidea

- 3 ordu inguruko ibilbidea izango da.
- Bizikletaz egingo da
- Euskaraz izango da

IZENA EMATEKO EDO

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

688 635 350 bulego orduetan
getxo.toponimia@gmail.com



Getxo
bizi ezazu

Imanol Landa

Jose Luis Bilbao



getxo
Getxo
getxo

ONENA EMATEKO GARAIA